





**Traumatologia**

# **H**IZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

**<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>**

Argitaraldia: I.a, 2017ko xxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: <http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm>

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

## HITZAURREA

**B**este edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan [www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarritzko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

*Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 29a*

**MIREN DOBARAN URRUTIA**  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenetasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

**Hiztegia erabilitako ponderazio-markak:**

(4) Termino normalizatua/gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegia erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara

**es** español

**fr** français

**en** English

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus



## NORMALIZAZIOA

### BATZORDE TEKNIKOA

**Ana Lersundi** (Donostiako Unibertsitate Ospitaleko traumatologoa)

**Gontzal Lopez** (Osakidetzako euskara teknikaria)

**Sara Lizeaga** (Donostiako Unibertsitate Ospitaleko traumatologoa)

**Javier Agirre** (UZEI)

Koordinatzailea: **Mertxe Olaizola**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

### TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Patxi Baztarrika Galparsoro**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

**Eneko Oregi Goñi**, IVAPEko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

**Jorge Giménez Bech**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

**Maite Imaz Leunda**, IVAPEko ordezkaria

**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua

**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua

**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua

**Miel Loinaz Beristain**, aditua

**Alberto Atxabal Rada**, aditua

**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

**UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK**

**Iñaki Aguinaga.** Donostiako Unibertsitate Ospitaleko traumatologoa

**Joxe Mari Urreaga.** Donostiako Unibertsitate Ospitaleko traumatologoa

## **EREMU-ZUHAITZA**



- 1 Anatomia**
- 2 Histologia. Anatomia Patologikoa**
- 3 Fisiologia**
- 4 Biokimika**
- 5 Patologia**
- 6 Diagnostikoa. Laborategia. Proba eta prozedura diagnostikoak**
- 7 Terapeutika. Botikak. Tratamendurako teknikak**
- 8 Tresnak eta aparatuak**
- 9 Administrazio sanitarioa**

## AURKIBIDEA



### **Bokabularioa sailka**

1. ANATOMIA . . . . .	14
2. HISTOLOGIA. ANATOMIA PATOLOGIKOA . . . . .	54
3. FISILOGIA . . . . .	61
4. BOKIMIKA. . . . .	65
5. PATOLOGIA . . . . .	66
6. DIAGNOSTIKOA. LABORATEGIA. PROBA ETA PROZEDURA DIAGNOSTIKOA	83
7. TERAPEUTIKA. BOTIKAK. TRATAMENDURAKO TEKNIKAK. . . . .	86
8. TRESNAK ETA APARATUAK . . . . .	92
9. ADMINISTRAZIO SANITARIOA . . . . .	94
<b>Euskarazko aurkibidea . . . . .</b>	<b>95</b>
<b>Gaztelaniazko aurkibidea . . . . .</b>	<b>107</b>
<b>Frantsesezko aurkibidea . . . . .</b>	<b>119</b>
<b>Ingelesezko aurkibidea . . . . .</b>	<b>131</b>
<b>Erreferentzia bibliografikoak. . . . .</b>	<b>143</b>

# BOKABULARIOA SAILKA

## I. ANATOMIA

### ahur

Ik. esku-ahur

### 1

#### Akiles-en tendoi (4)

Sin. kalkaneo-tendoi (3); orpazurda (3)  
Muskulu soleoa eta muskulu bikiak kalkaneoaren tuberositateari lotzen dizkion tendoi sendoa, orpoan dagoena. Gorputzeko tendoirik handiena da.

**es** tendón de Aquiles; tendón calcáneo

**fr** tendon d'Achille; tendon calcanéen

**en** Achilles tendon; calcaneal tendon; heel cord

### 2

#### akromion (4)

Sorbalda-hezurreko arantzaren muturreko apofisia, giltzadura akromioklabikularra osatzeko klabikularen kanpoko muturrarekin artikulatzen dena.

**es** acromion

**fr** acromion

**en** acromion

#### akromion-lepauztai giltzadura

Ik. giltzadura akromioklabikular

### 3

#### aldaka (4)

Sin. mokor (4); mehaka (3)  
Behoko gorputz-adarraren goiko zatia, pelbisaren eta izterraren artean kokatua. Adiera hertsian, giltzadura edo hezurra bera.

**es** cadera

**fr** hanche

**en** hip

### 4

#### anfiartrosi (4)

Sin. giltzadura erdimugikor (3);

sinfisi (3)

Mugimendu txikiko giltzadura, fibrokartilago batek elkarturiko bi giltzadura-gainazal lauk osatua.

Ornoen gorputzen arteko giltzadurak, adibidez, anfiartrosiak dira.

**es** anfiartrosis; articulación semimóvil; sínfisis

**fr** amphiarthrose; articulation semi-mobile; symphyse

**en** amphiarthrosis; cartilaginous joint; symphysis

### 5

#### apofisi (4)

Sin. irtengune (3)

**es** apófisis; proceso

**fr** processus; apophyse

**en** process; apophysis

### 6

#### apofisi zorrotz (4)

Sin. arantza-apofisi (4)

Orno-gorputzaren atzealdera proiektatzen den hezurrezko xafla bakoitia, arku neuralean sagitalki kokatua. Bertan lotzen dira arantza-muskuluak.

**es** apófisis espinosa; proceso espinoso

**fr** processus épineux; apophyse épineuse

**en** spinous process

7

**aponeurosi (4)**

Sin. faszia (4)

Tendoien luzapena, zuntzeko mintz zuri, gogor eta distiratsu batez osatua, muskuluen estalki gisa (bilkin-aponeurosia) edota muskuluak mugitzen dituzten zatiekin lotzeko (lotune-aponeurosia) balio duena.

**es** aponeurosis; fascia

**fr** aponévrose; fascia

**en** aponeurosis; fascia

8

**arantza azpiko muskulu (4)**

Sin. muskulu infraespinoso (4)

Bizkarreko muskulua, eskapulako hobi infraespinosotik trokiterreara zabaltzen dena.

**es** músculo infraespinoso

**fr** muscle infraépineux

**en** infraspinatus muscle

9

**arantza gaineko muskulu (4)**

Sin. muskulu supraespinoso (4)

**es** músculo supraespinoso

**fr** muscle supraépineux

**en** supraspinatus muscle

10

**arantza iliako (4)**

Sin. ilion-arantza (4)

Hezur koxalaren aurreko ertzean dauden arantza edo irtenguneetako bakoitza, aurre-goikoa bata eta aurre-behekoa bestea.

**es** espina ilíaca

**fr** épine iliaque

**en** iliac spine

11

**arantza ziatiko (4)**

Sin. iskion-arantza (4)

**es** espina ciática; espina isquiática

**fr** épine ischiatique; épine sciatique

**en** ischial spine; sciatic spine

**arantza-apofisi**

Ik. apofisi zorrotz

**ardatz-hezurdura**

Ik. eskeleto axial

**arku krural**

Ik. iztai-lotailu

**arku superziliar**

Ik. bekain-arku

**artikulazio**

Ik. giltzadura

12

**artrodia (4)**

Sin. giltzadura lau (4)

Giltzadura-gainazal lauko hezurak elkartzen diren giltzadura sinobiala. Mugimendu-ardatzik ez dagoenez, hezur bat bestearen gainean lerratzen da.

**es** artrodia; articulación plana

**fr** arthrodie; articulation plane

**en** arthrodia; plane joint

13

**astragalo (4)**

Sin. talus (4)

Tartsoko hezurra, tibiarekin eta peronearekin artikulatuta orkatilako giltzadura osatzen duena. Zangoko hezurrekin lotura duen tartsoko hezur bakarra da, eta ez dauka muskululotunerik. Kalkaneoarekin eta eskafoide hezurrekin ere artikulatzen da.

**es** astrágalo

**fr** talus; astragale

**en** talus; astragalus

14

**atlas** (4)

Sin. C1 (4)

Bizkarrezurreko lehenengo ornoa, okzipitalarekin batera giltzadura atlookzipitala osatzen duena. Garai batean buruari eusten ziola pentsatzen zelako hartu zuen izena, Atlas pertsonaia mitologikoaren oroitzapenez.

**es** atlas; C1

**fr** atlas; C1

**en** atlas; C1

**atzamar**

Ik. hatz

**atzamar-hezur**

Ik. hatz-hezur

15

**atzeko lotailu gurutzatu** (4)

Belaunaren erdialdeko euskarrietako bat, tibiaren atzealdetik femurraren barneko kondiloaren kanpo eta aurrealderantz hedatzen den zuntz lodi eta sendo batez osatua. Haren funtziorik garrantzitsuenak belaunari egonkortasuna ematea da, batik bat atzerantzko gehiegizko mugimenduak ekidinez.

**es** ligamento cruzado posterior; LCP

**fr** ligament croisé postérieur; LCP

**en** posterior cruciate ligament; PCL

**atzeko muskulu tibial**

Ik. atzeko tibia-muskulu

16

**atzeko tibia-muskulu** (4)

Sin. atzeko muskulu tibial (4)

Zangoaren atzeko konpartimentuko muskulua, hango muskuluetatik sakonena, tibiaren eta peronearen atzealdetik eta hezur arteko mintzetik abiatuz oineraino iristen dena. Jatorrian muskulua bada ere, orkatilan lotailu bilakatzen da, eta, barneko maleoloaren atzetik pasa ondoren, oineko hezur nabikularrean eta lehen hezur kuneiformean txertatzen da. Oinaren flexio plantarra eta adukzioa ditu funtziorik garrantzitsuenak.

**es** músculo tibial posterior

**fr** muscle tibial postérieur

**en** tibialis posterior muscle

17

**aurreko lotailu gurutzatu** (4)

Belaunaren erdialdeko euskarrietako bat, tibiaren aurre eta erdialdetik femurraren kanpoko kondiloaren barne eta atzealderantz hedatzen den zuntz lodi eta sendo batez osatua. Haren funtziorik garrantzitsuenak belaunari egonkortasuna ematea da, batik bat aurrerantzko gehiegizko mugimenduak ekidinez.

**es** ligamento cruzado anterior; LCA

**fr** ligament croisé antérieur; LCA

**en** anterior cruciate ligament; ACL

**aurreko muskulu tibial**

Ik. aurreko tibia-muskulu



18

**aurreko tibia-muskulu (4)**

Sin. aurreko muskulu tibial (4)

Zangoaren aurreko konpartimentuko muskulua, tibiaren kanpoaldeko tuberositatetik eta hezur arteko mintzetik abiatuz oineraino iristen dena. Jatorrian muskulua bada ere, orkatilan lotailu bilakatzen da, eta haren bidez txertatzen da oineko lehen hezur kuneiformean eta lehen metatarsianoan. Oinaren flexio dorsala eta inbertsioa ahalbidetzen ditu.

**es** músculo tibial anterior

**fr** muscle tibial antérieur

**en** tibialis anterior muscle

19

**axis (4)**

Sin. C2

Bigarren lepaornoa, goian atlasarekin eta behean hirugarren lepaornoarekin artikulatzen dena. Axisaren alderdirik bereizgarriena odontoide apofisia da, enbriologikoki atlasaren gorputza besterik ez dena eta atlas ornoaren aurreko arkuko giltzadura-aurrepegiarekin artikulatzen dena. Buruko errotazio-mugimenduetarako ardatz gisa jokatzeko du, eta hortik datorkio izena, grezieraz axis hitzak ardatza esan nahi baitu.

**es** axis; C2

**fr** axis; C2

**en** axis; C2

**axisaren hortz**

Ik. odontoide apofisi

20

**azetabulu (4)**

Sin. barrunbe kotiloideo (4); kotilo (4)  
Pelbiseko hezur koxalean –iskion, ilion eta pubis hezurren arteko loturan–dagoen kopa-formako giltzadura-barrunbea, izterrezurraren burua bere barnean jasotzen duena.

**es** acetábulo; cavidad cotiloidea; cótilo

**fr** acétabulum; cavité cotyloïde; cotyle

**en** acetabulum; cotyloid cavity; cotyle

**aztal**

Ik. zangosagar

21

**baraila (4)**

Sin. beheko masailezur (4)

Hezur bakoitia, zentrala eta simetrikoa; beheko masailezuraren eskeletoa berak bakarrik osatzen du. Gorputz kurbatu batez (zeinetan ahokatzeko baitira beheko hortz-haginak) eta loki-hezurarekin artikulatzen diren goranzko bi adarrez osatua dago. Baraila da garezurreko hezur mugikor bakarra, eta hari esker dira posible murtzikatzeko mugimenduak.

**es** mandíbula; maxilar inferior

**fr** mandibule; maxillaire inférieur

**en** mandible; lower jaw

**barrunbe kotiloideo**

Ik. azetabulu

**barrunbe toraziko**

Ik. torax

22

**behatz (4)**

**es** dedo del pie

**fr** orteil; doigt du pied

**en** toe

23

**behatz-hezur (4)**

Sin. falange (4)

Oineko behatzetako hezurretako bakoitza. Gizakiak hiru falange izaten ditu behatz bakoitzean (lehenengoa edo proximala, bigarrena edo erdikoa eta hirugarrena edo distala), behatz lodian izan ezik, bertan bi baizik ez baititu.

**es** falange

**fr** phalange

**en** phalanx

24

**beheko gorputz-adar (4)**

Giza anatomian, aldakak, izterrak, zangoak eta oinak eratzen duten gorputz-adarra.

**es** miembro inferior; extremidad inferior

**fr** membre inférieur

**en** lower limb; lower extremity

**beheko masailezur**

Ik. baraila

25

**bekain-arku (4)**

Sin. arku superziliar (4)

Kopeta-hezuraren begi gaineko prominentzia, bekainaren azpi-azpian kokatua.

**es** arco superciliar; arcada superciliar

**fr** arcade sourcilière

**en** superciliary arch

26

**bekoki-hezur (4)**

Sin. kopeta-hezur (4); hezur frontal (4)

Garezurraren goialdean eta aurrealdean, hezur parietalaren hurrenean, dagoen mintz-hezur bikoitza; gizakiaren kasuan, bi hezurrok elkartu egiten dira, kopeta eta betzuloen gainaldea eratzen duen hezur bakarra eratuz.

**es** frontal; hueso frontal

**fr** os frontal; frontal

**en** frontal bone

27

**belaun (4)**

Zangoaren erdialdean dagoen giltzadura, femur, tibia eta belaunezuraren artekoa. Zentzu zabalean, giltzadura hori bere barnean hartzen duen zango-zatia, eta bereziki eremu horren aurreko alde. Atzeko aldeari popliteo deritzo.

**es** rodilla

**fr** genou

**en** knee

**belaunburu**

Ik. errotula

28

**belauneko giltzadura (4)**

Izterrezurraren beheko muturra errotularekin eta tibiarekin lotzen duen giltzadura. Bi artikulaziok osatzen dute: batetik, izterrezurraren troklearen eta errotularen atzeko aldearen artean ezartzen den troklea-motakoak, eta, bestetik, izterrezur-kondiloen eta tibiaren meseten artean ezartzen den kondilo-itxurakoak. Azken giltzadura horrek bi menisko artikular dauzka.

**es** articulación de la rodilla

**fr** articulation du genou

**en** knee joint

**belaunezur**

Ik. errotula

**belaunezur-tendoi**

Ik. tendoi errotuliano

**29**

**benetako saihets-hezur (4)**

Sin. saihets-hezur jator (4); egiazko saihets-hezur (4)

Kasu bakoitzean dagokion saihets-kartilagoaren bidez bularrezurreraino iristen den saihets-hezurra. Zazpi pare dira gizakiaren kasuan.

**es** costilla verdadera

**fr** côte vraie

**en** true rib

**berna**

Ik. zango

**besaburu**

Ik. sorbalda

**30**

**besahezur (4)**

Sin. humero (4)

Besaburuaren eta ukondoaren arteko hezurra. Goiko muturrak forma biribildua dauka (besahezurraren burua esaten zaio) eta eskapulako barrunbe glenoideoarekin artikulatzen da.

Beheko muturra, aldiz, besaurreko bi hezurrekin artikulatzen da: kubituairekin eta erradioarekin.

**es** húmero

**fr** humérus

**en** humerus

**31**

**besahezurraren buru (4)**

**es** cabeza humeral

**fr** tête humérale

**en** humeral head

**32**

**besahezurreko alboko epikondilo (4)**

Sin. besahezurreko epikondilo lateral (4); epikondilo (4); epikondilo erradial (4)

Besahezurraren kanpoko kondiloaren gainetik kokatzen den hezur-irtengunea.

**es** epicóndilo lateral del húmero; epicóndilo; epicóndilo externo del húmero; epicóndilo radial

**fr** épicondyle latéral de l'humérus; épicondyle externe de l'humérus; épicondyle

**en** lateral epicondyle of humerus; external epicondyle of humerus

**besahezurreko epikondilo lateral**

Ik. besahezurreko alboko epikondilo

**besahezurreko epikondilo medial**

Ik. besahezurreko erdialdeko epikondilo

**33**

**besahezurreko erdialdeko epikondilo (4)**

Sin. besahezurreko epikondilo medial (4); epitroklea (4)

Besahezurraren barneko kondiloaren gainetik kokatzen den hezur-irtengunea.

**es** epicóndilo medial del húmero; epicóndilo interno del húmero; epitroclea

**fr** épicondyle médial de l'humérus; épicondyle interne de l'humérus; épitrochlée

**en** medial epicondyle of humerus; internal epicondyle of humerus; epitrochlea

**besape**

Ik. galtzarbe

34

**besaurre** (4)

Ukondoko giltzaduraren eta eskumuturraren artean kokatua dagoen goiko gorputz-adarraren zatia.

**es** antebrazo  
**fr** avant-bras  
**en** forearm

35

**beso** (4)

Goiko gorputz-adarretako bakoitza. Goitik behera, humeroak edo besahezurrak, kubitua eta erradioak, eta karpoko eta hatzetako hezurrek osatzen dute besoaren eskeletoa.

**es** brazo  
**fr** bras  
**en** arm

36

**beso** (4)

Sin. besondo (4)

Goiko gorputz-adarraren zatia, besaburuaren eta ukondoaren artekoa.

**es** brazo  
**fr** bras  
**en** arm

**beso-plexu**

Ik. plexu brakial

37

**besoko biceps muskulu** (4)

Sin. biceps muskulu brakial (4)

Besoaren aurreko eta azaleko konpartimentuan, sorbalda-hezurretik erradioaren tuberositate bizipitalera doan muskulua, bi buru edo iturburu dituena, luzea bata eta laburra bestea.

**es** músculo bíceps braquial  
**fr** muscle biceps brachial  
**en** biceps brachii muscle; brachial biceps

**besoko sare**

Ik. plexu brakial

38

**besoko trizeps muskulu** (4)

Sin. trizeps muskulu brakial (4)

Humeroaren atzealdean kokatua dagoen muskulua, hiru buru dituena. Besaurrearen hedapena edo estentsioa da haren eginkizuna.

**es** músculo tríceps braquial  
**fr** muscle triceps brachial  
**en** triceps brachii muscle

**besondo**

Ik. beso

39

**betzulo** (4)

Sin. orbita (4)

**es** órbita; cavidad orbitaria  
**fr** cavité orbitaire; orbite  
**en** orbital cavity; orbit

**bizeps muskulu brakial**

Ik. besoko biceps muskulu

**bizeps muskulu femoral**

Ik. izterreko biceps muskulu

40

**bizkar** (4)

Gorputz-enborraren atzeko aldea, lepotik pelbiseraino hedatzen dena.

**es** espalda  
**fr** dos  
**en** back

41

**bizkar-orno** (4)

Sin. orno dorsa (4); D (4); orno toraziko (4); T (4)

Lepaornoen azpian, bizkarraren erdialdean, kokatuta dauden hamabi ornoetako bakoitza. D nahiz T letra maiuskularekin eta jarraian dagokien ondoz ondoko zenbakiarekin izendatzen dira.

**es** vértebra dorsal; D; vértebra torácica; T

**fr** vertèbre thoracique; T; vertèbre dorsale; D

**en** thoracic vertebra; T

42

**bizkarreko muskulu zabal** (4)

**es** músculo dorsal ancho; músculo latísimo del dorso

**fr** muscle latissimus du dos; muscle grand dorsal

**en** latissimus dorsi muscle

43

**bizkarrezur** (4)

Sin. erraki (4)

Gizakien bizkarrezur-muina babesten duen goitik beherako ornoen segida, enborraren hezurrezko ardatza eratzen duena. Bizkarrezurra bost orno-multzotan banatzen da: lepaornoak (7), bizkar-ornoak (12), gerri-ornoak (5), errain-hezurra eta uzkorra, eta ornoarteko diskoei esker mugikortasun handia dauka. Bizkarrezurra ez da erabat zuzena, zenbait kurbadura ditu (lordosi zerbikal nahiz lunbarra eta zifosi torazikoa).

**es** columna vertebral; raquis; espina dorsal

**fr** colonne vertébrale; rachis; colonne rachidienne

**en** vertebral column; spinal column; spine; rachis

**bizkarrezur-hodi**

Ik. orno-hodi

44

**bizkarrezur-muin** (4)

Sin. orno-muin (4)

Orno-kanalaren barruan dagoen nerbio-sistemaren zatia, hiru mintz babeslez inguratua. Gizaki helduan garezur-oinaldean hasi eta bigarren orno lunbarreraino hedatzen da. Zona horretatik behera murrizten hasten da, gai nerbiosoa gutxi duen kordoi mehe eta zuntzeko moduko osatzeraino (filum terminale izenekoa, hain zuzen ere).

**es** médula espinal

**fr** moelle spinale

**en** spinal cord

**bular-kaxa**

Ik. kutxa toraziko

45

**bular-muskulu nagusi** (4)

Toraxaren aurrealdean kokatzen den muskulua, klabikula, bularrezur eta lehen sei saiheits-hezurretatik sorbaldaraino hedatzen dena. Besoaren hurbilketa eta barne-errotazioa eragiten ditu.

**es** músculo pectoral mayor

**fr** muscle grand pectoral

**en** pectoralis major muscle

46

**bular-muskulu txiki** (4)

Toraxaren aurrealdean kokatzen den muskulua, 3. eta 5. saiheits-hezurren erdialdetik eskapularen korakoide apofisiraino hedatzen dena. Sorbalda jaistea da haren funtzio nagusia.

**es** músculo pectoral menor

**fr** muscle petit pectoral

**en** pectoralis minor muscle

47

**bularrezur (4)**

Hezur laua, bularraldearen aurreko paretan kokatua, alde bakoitzean saihets-hezurrekin eta klabikularekin artikulatzen dena. Bertan kirtena (edo manubrioa), gorputza eta xifoide apofisia edo apendizea bereizten dira, goitik behera.

**es** esternón  
**fr** sternum  
**en** sternum

**bularrezur-lepauztai giltzadura**

Ik. giltzadura esternoklabikular

48

**bularrezurraren gorputz (4)**

**es** cuerpo del esternón  
**fr** corps du sternum  
**en** body of the sternum

**bularrezurraren kirten**

Ik. bularrezurraren manubrio

49

**bularrezurraren manubrio (4)**

Sin. bularrezurraren kirten (4)

**es** manubrio esternal  
**fr** manubrium sternal  
**en** manubrium of sternum

**burezur**

Ik. gazezur

**C**

Ik. lepaorno

**C1**

Ik. atlas

**C2**

Ik. axis

**Chopart-en giltzadura**

Ik. tartsoko erdiko giltzadura

**D**

Ik. bizkar-orno

50

**deltoido muskulu (4)**

Sorbaldako muskulu triangeluar handia, sorbaldaren goiko aldetik humeroaren diafisira doana eta besoa alboetarantz jasotzen duena.

**es** músculo deltoides  
**fr** muscle deltoïde  
**en** deltoid muscle

51

**diartrosi (4)**

Sin. giltzadura mugikor (4); giltzadura sinobial (4)

Kartilago hialinoz estalitako giltzadura-gainazalek, giltzadura-kapsulak eta indargarri edo errefortzu gisa jokatzeko duten lotailuek osatzen duten artikulazioa. Giltzadura osatzen duten hezurren artean dagoen tarreak mugimendu-aukera zabala ematen die hezurrei (errotazioa, flexioa, hedapena, abdukzioa, adukzioa, etab.).

**es** diartrosis; articulación móvil; articulación sinovial  
**fr** diarthrose; articulation synoviale; articulation mobile  
**en** diarthrosis; synovial joint

**egiazko saihets-hezur**

Ik. benetako saihets-hezur

**elipse-itxurako giltzadura**

Ik. kondilo-itxurako giltzadura

**elkarrekiko ahokapen**

Ik. zela-giltzadura

52

**enartrosi (4)**

Diartrosien taldeko artikulazioa, bi esfera- edo esferoide-segmentuz osatua. Hezur-segmentuetako bat konbexua izaten da (izterrezur-burua, esaterako) eta bestea, berriz, konkaboa (barrunbe kotiloidea). Horrelako giltzadurak norabide guztietan mugitzen dira.

- es** enartrosis; articulación esferoidea
- fr** énarthrose; articulation sphéroïde
- en** enarthrosis; ball-and-socket joint; spheroidal joint

**epikondilo**

Ik. besahezurreko alboko epikondilo

**epikondilo erradial**

Ik. besahezurreko alboko epikondilo

**epitroklea**

Ik. besahezurreko erdialdeko epikondilo

53

**erdiko falange (4)**

Sin. falangina (3); F2 (4)

Hatzetako eta behatzetako bigarren falangea. Eskuko erpuruan eta oineko behatz lodian, falta da.

- es** falange media; falangina; F2
- fr** phalange moyenne; phalange; P2
- en** middle phalanx; P2

54

**erpuruaren muskulu aurkari (4)**

Sin. erpuruaren muskulu oposatzaile (3)

Erpuruaren muskulu aduktorea, hatz lodia esku-ahurrera hurbiltzen duena.

- es** músculo oponente del pulgar
- fr** muscle opposant du pouce
- en** opponens pollicis muscle

**erpuruaren muskulu oposatzaile**

Ik. erpuruaren muskulu aurkari

55

**erradio (4)**

Sin. erradio hezur (4)

Besaurrearen kanpoko aldean, humeroaren eta karpoko hezurren artean kokatua dagoen hezurra, hezur arteko mintzaren bitartez barrutik kubituekin artikulatzen dena. Goiko aldetik humeroarekin artikulatzen da, eta, beheko aldetik, berriz, karpoko hezurrekin.

- es** radio
- fr** radius
- en** radius

**erradio hezur**

Ik. erradio

**erradio-karpo giltzadura**

Ik. eskumuturreko giltzadura

**erradioaren eraztun-lotailu**

Ik. erradioaren lotailu anular

56

**erradioaren lotailu anular (4)**

Sin. erradioaren eraztun-lotailu (4)

Erradioaren burua kubituaen barrunbe sigmoideo txikiaren barruan mantentzen duen zuntzezko banda.

- es** ligamento anular del radio
- fr** ligament annulaire du radius
- en** anular ligament of radius

57

**errain-hezur (4)**

Sin. sakro hezur (4)

Falka trunkatuaren forma duen hezur triangeluarra, bat egindako bost ornoz osatua. Aurreko aurpegia barrurantz sartua dago, eta goiko ertz irtena pelbisaren goiko estugunearen zati da. Bi hezur koxalekin artikulatzen da, baina giltzadura hori haurdunaldiaren azken aldian bakarrik mugi daiteke, aurretik atzerako balantza moduko mugimendu txiki batzuk eginez. Mugimendu horiek pelbiseko bi estuguneetatik (goiko nahiz beheko estuguneetatik) barrena irteten laguntzen diote fetuaren buruari.

**es** sacro; hueso sacro

**fr** sacrum; os sacrum

**en** sacrum; sacral bone

58

**errain-hezurreko zulo (4)**

Errain-hezuraren aurreko aldean dauden zortzi zuloetako bakoitza. Nerbio sakroen adar bentralak igarotzen dira bertatik.

**es** agujero sacro

**fr** trou sacré

**en** sacral foramina

59

**errain-orno (4)**

Sin. orno sakro (4); S (4)

Errain-hezurra osatzen duten bost ornoetako bakoitza. Elkarren artean fusionatuak daude, eta hezurrezko egitura mugiezina osatzen dute. S letra maiuskularekin eta jarraian dagokien ondoz ondoko zembakiarekin izendatzen dira.

**es** vértebra sacra; S

**fr** vertèbre sacrée; S

**en** sacral vertebra; S

**erraki**

Ik. bizkarrezur

60

**erronboide muskulu (4)**

Zenbait ornoren apofisi zorrotzak sorbalda-hezuraren erdiko ertzarekin lotzen dituzten trapezioaren azpiko bi muskuluetatik bakoitza.

**es** músculo romboides

**fr** muscle rhomboïde

**en** rhomboid muscle

61

**errotula (4)**

Sin. patela (4); belaunezur (4);

belaunburu (3)

Forma triangeluarreko hezur txiki, lodi, eta mugikorra. Izterreko koadrizeps muskuluaren tendoiaren barruan dago, eta tendoi errotulianoaren bidez lotzen da tibiaren aurreko tuberositatearekin, belauaren estentsio-mugimendua ahalbidetuz. Mugimendu horretan, izterrezurraren troklearekin giltzatzen da.

**es** rótula; patela

**fr** rotule; patella

**en** patella; knee cap

62

**esfinter muskulu (4)**

Irekigune bat, hala nola maskurikoa edo uzkiakoa, uzkurtzen edo ixten duen eraztun-formako muskulua.

**es** músculo esfínter

**fr** muscle sphincter

**en** sphincter muscle



63

**eskafoide hezur (4)**

Sin. karpoko eskafoide hezur (4)

Karpo edo eskumuturreko aurreneko ilarako hezurrik handiena. Bost hezurrekin artikulatzen da: erradioarekin, semilunarrekin, hezur handiarekin, trapezoidearekin eta trapezioarekin.

**es** escafoides; escafoides carpiano

**fr** os scaphoïde; scaphoïde carpien

**en** scaphoid bone; carpal scaphoid

64

**eskapula (4)**

Sin. omoplato (4); sorbalda-hezur (4)

Hezur laua, mehea, triangeluarra, sorbaldaren atzeko partea osatzen duena. Bigarren saiheits-hezurretik zazpigarrenera bitartean kokatuta dago. Haren barrunbe glenoideoan besahezurraren burua artikulatzen da.

**es** escápula; omóplato

**fr** scapula; omoplate

**en** scapula; blade bone; shoulder blade

65

**eskapula azpiko muskulu (4)**

Sin. muskulu subeskapular (4)

Eskapularen saiheits-aldean sortu eta humeroaren tuberkulu txikian (trokinean) txertatzen den muskulua. Haren eginkizuna besoa hurbildu eta barrurantz biraraztea da.

**es** músculo subescapular

**fr** muscle subscapulaire

**en** subscapularis muscle

66

**eskapula-gerriko (4)**

Sin. sorbalda-gerriko (4)

Enborraren eta goiko gorputz-adarraren arteko lotura eratzen duen zona anatomikoa, bularrezurrak, klabikulak eta eskapulak osatua. Lepoaren oinaldetik bularreko muskulu handiaren azpiko ertzeraino hedatzen da.

**es** cintura escapular

**fr** ceinture scapulaire

**en** scapular waist; shoulder girdle

67

**eskeleto (4)**

Sin. hezurdura (4)

Giza gorputzaren hezurrezko egitura, 206 hezurrek osatua, barruko organo eta ehun bigunak eutsi eta babesten dituen. Muskuluei beren ekintzak egiteko beharrezkoak dituzten palankak eskainiz, mugimenduak ahalbidetzen ditu.

**es** esqueleto

**fr** squelette

**en** skeleton

68

**eskeleto apendikular (4)**

Gorputz-adarretako eskeletoa, 126 hezur guztira.

**es** esqueleto apendicular

**fr** squelette appendiculaire

**en** appendicular skeleton

69

**eskeleto axial (4)**

Sin. ardatz-hezurdura (3)

Gorputzaren erdiko ardatzean kokatutako hezurak (garezurra, bizkarrezurra, saiheits-hezurak eta bularrezurra), 80 hezur guztira.

**es** esqueleto axial

**fr** squelette axial

**en** axial skeleton

70

**esku** (4)

Goiko gorputz-adarraren zati distalean, besaurrearen muturrean, dagoen gorputz-atala. Hiru zati ditu: karpoa, metakarpoa eta hatzak. Gizakietan, atzitze-funtzioetarako espezializatuta dago.

**es** mano

**fr** main

**en** hand

71

**esku-ahur** (4)

Sin. ahur (4); esku-zabal (4)  
Giza eskuaren zati konkabo samarra, hatz-oinaldean eta eskumuturraren artean dagoena. Ukabila ixten denean, hatzak haren gainean tolesten dira.

**es** palma de la mano

**fr** paume

**en** palm

**esku-zabal**

Ik. esku-ahur

72

**eskugain** (4)

Eskuaren kanpoalde ganbila, esku-ahurraren kontrako aldean dagoena.

**es** dorso de la mano

**fr** dos de la main

**en** back of hand; dorsum of hand

73

**eskumutur** (4)

Besaurrearen eta eskuaren artean kokatua dagoen gorputz-atala. Bertan artikulatzen dira kubitua eta erradioa karp-hezurrekin.

**es** muñeca

**fr** poignet

**en** wrist

74

**eskumuturreko giltzadura** (4)

Sin. giltzadura erradiokarpiano (4);

erradio-karpo giltzadura (4)

Kondilo-itxurako giltzadura: erradio hezuraren beheko muturrak eta karpoko lehenengo lerroko hiru hezurrek (eskafoide, semilunar eta piramidalak) eratutako kondiloak osatzen dute. Mugimendu ugari ahalbidetzen ditu: flexioa, estentsioa eta desbideraketa erradial eta kubitala.

**es** articulación de la muñeca;  
articulación radiocarpiana

**fr** articulation du poignet;  
articulation radio-carpienne

**en** wrist joint; radiocarpal joint

**eskumuturreko hezur**

Ik. karp-hezur

75

**estiloide apofisi** (4)

**es** apófisis estiloides; proceso  
estiloideo

**fr** processus styloïde; apophyse  
styloïde

**en** styloid process

**F1**

Ik. falange proximal

**F2**

Ik. erdiko falange

**F3**

Ik. falange distal

**falange**

Ik. behatz-hezur

**falange**

Ik. hatz-hezur

76

**falange distal** (4)

Sin. urruneko falange (4); falangeta (3); F3 (4)  
 Hatzetako eta behatzetako hirugarren falangea, guztietan txikiena.  
**es** falange distal; falangeta; F3  
**fr** phalange distale; phalangette; P3  
**en** distal phalanx; terminal phalanx; phalangette; P3

77

**falange proximal** (4)

Sin. hurbileko falange (4); F1 (4)  
 Hatzetako eta behatzetako lehenengo falangea.  
**es** falange proximal; F1  
**fr** phalange proximale; P1  
**en** proximal phalange; P1

**falangeta**

Ik. falange distal

**fangina**

Ik. erdiko falange

78

**falka-hezur** (4)

Sin. hezur kuneiforme (4)  
 Tartsoa osatzen duten piramide-formako hezurretako bakoitza. Hiru hezur labur dira (barrutik kanporantz zenbatzen dira), eta eskafoidearen aurrean kokatuta daude, tartsoaren bigarren hezur-ilaran.  
**es** hueso cuneiforme; cuña; cuneiforme  
**fr** os cunéiforme; cunéiforme  
**en** cuneiform bone; cuneiform; wedge bone

**faszia**

Ik. aponeurosi

**femur**

Ik. izterrezur

**fibula**

Ik. perone hezur

**fibula-muskulu**

Ik. muskulu peroneo

79

**galtzarbe** (4)

Sin. besape (4)  
 Beso eta sorbaldaren arteko loturaren azpian dagoen barrunbea. Pertsona helduan, normalean, ilez betea egon ohi da.  
**es** axila  
**fr** aisselle  
**en** axilla

80

**garezur** (4)

Sin. burezur (4); kranio (3)  
 Gizakiaren buru-eskeletoa edo buruko hezurren multzoa, adiera zabalean; adiera hertsian, aldiz, entzefaloa barruan hartzen duen hezurrezko kaxa.  
**es** cráneo  
**fr** crâne  
**en** skull; cranium

81

**garezur-ganga** (4)

Garezurraren goiko zatia, kopeta-hezurraren zati bertikalak, hezur parietalek, tenporalen zati ezkatatsuak eta hezur okzipitalak osatzen dutena.  
**es** bóveda craneal; calota; calvaria  
**fr** calvaria; calotte crânienne; voûte du crâne  
**en** calvaria; cranial vault; skull cap

82

**garezurraren oinalde (4)**

Sin. garezurraren oinarri (3)

Garezurreko kaxaren azpiko pareta, garezur-gangaren beste aldeko muturrean kokatua. Hiru zati bereizten dira bertan: aurrekoa edo hobi etmoidofrontala (haren gainean daude lobulu frontalak eta usaimen-lobuluak), erdikoa edo esfenotenporala (haren gainean daude lobulu tenporalak eta hipofisia) eta atzekoa edo hobi tenporookzipitala (han irekitzen dira zulo handia edo okzipitala eta beste irekigune batzuk, garezur-nerbioak pasatu daitezten).

**es** base del cráneo

**fr** base du crâne

**en** base of skull

**garezurraren oinarri**

Ik. garezurraren oinalde

83

**garondo (4)**

Sin. lepogain (3)

Lepoaren atzealdea, lepaornoen atzetik kokaturik dauden zati bigun eta haragitsuek eratua.

**es** nuca

**fr** nuque

**en** nape

84

**garondo-hezur (4)**

Sin. hezur okzipital (4)

Garezurraren atzealdea osatzen duen hezur bakoiti eta zapala; zulo okzipitala inguratzen du, eta kondiloz dago hornituta atlasarekin giltzatu ahal izateko.

**es** occipital; hueso occipital

**fr** os occipital; occipital

**en** occipital bone

85

**gerri-orno (4)**

Sin. orno lunbar (4); L (4)

Gerrialdeko bost ornoetako bakoitza. Bizkarraren beheko aldean daude kokatuak, bizkar-ornoen azpian eta errain-ornoen gainean. L letra maiuskularekin eta jarraian dagokien ondoz ondoko zenbakiarekin izendatzen dira.

**es** vértebra lumbar; L

**fr** vertèbre lombaire; L

**en** lumbar vertebra; L

**gerri-plexu**

Ik. plexu lunbar

**gihar**

Ik. muskulu

86

**giltzadura (4)**

Sin. artikulazio (4)

Bi hezur edo gehiagoren lotunea. Mugimenduari begira, giltzadurak honela banatzen dira: diartrosiak edo giltzadura mugikorak (mugimendu-ardatz bakarra dutenak, troklea edo trokoideak; bi mugimendu-ardatz dituztenak, kondileoak eta zela modukoak; nahiz hiru ardatz eduki ditzaketenak, enartrosiak), anfiartrosiak (erdimugikorak) eta sinartrosiak (edo giltzadura mugiezinak).

**es** articulación

**fr** articulation

**en** joint; articulation

87

**giltzadura**

**akromioklabikular (4)**

Sin. akromion-lepauztai giltzadura (4)  
Klabikula eta akromiona (sorbalda-  
hezurreko irtengunea) lotzen dituen  
giltzadura.

**es** articulación acromioclavicular  
**fr** articulation acromio-claviculaire  
**en** acromioclavicular joint

**giltzadura erdimugikor**

Ik. anfiartrosi

**giltzadura erradiokarpiano**

Ik. eskumuturreko giltzadura

88

**giltzadura esternoklabikular (4)**

Sin. bularrezur-lepauztai giltzadura (4)

**es** articulación esternoclavicular  
**fr** articulation sterno-claviculaire  
**en** sternoclavicular joint

89

**giltzadura femorotibial (4)**

Sin. izterrezur-tibia giltzadura (4)

**es** articulación femorotibial  
**fr** articulation fémoro-tibiale  
**en** femorotibial joint

**giltzadura glenohumeral**

Ik. sorbaldako giltzadura

90

**giltzadura**

**karpometakarpiano (4)**

Sin. karmo-metakarmo giltzadura (4)  
Karpoko bigarren ilarako hezurrak  
metakarpianoen oinaldearekin lotzen  
dituzten artikulazioetako bakoitza.  
Lehenengoa (trapezio hezuraren eta  
lehenengo metakarpianoaren arteko  
giltzadura, alegia) elkarrekiko ahokapen  
bat da; gainerakoak, berriz, artrodiak.

**es** articulación carpometacarpiana  
**fr** articulation carpo-métacarpienne  
**en** carpometacarpal joint

**giltzadura kondileo**

Ik. kondilo-itxurako giltzadura

**giltzadura lau**

Ik. artrodia

**giltzadura mugiezin**

Ik. sinartrosi

**giltzadura mugikor**

Ik. diartrosi

91

**giltzadura sakroiliako (4)**

Sin. sakro-ilion giltzadura (4)

Hezur iliakoa errain-hezurarekin  
lotzen duen diartrosia.

**es** articulación sacroilíaca  
**fr** articulation sacro-iliaque  
**en** sacroiliac joint

**giltzadura sinobial**

Ik. diartrosi

92

**giltzadura**

**tartsometatarsiano (4)**

Sin. tartso-metatartso giltzadura (4);

Lisfranc-en giltzadura (4)

Artrodia-sail batek osatutako  
giltzadura, hezur kuneiformeen eta  
kuboide hezuraren aurreko aldeak  
metatartso hezurren atzeko aldearekin  
lotzen dituena.

**es** articulación tarsometatarsiana;  
articulación de Lisfranc  
**fr** articulation tarso-métatarsienne;  
articulation de Lisfranc  
**en** tarsometatarsal joint; Lisfranc  
joint

93

**giltzadura tenporomandibular (4)**

Sin. loki-baraitetako giltzadura (4)

**es** articulación temporomandibular; ATM; articulación de la mandíbula

**fr** articulation temporo-mandibulaire; articulation temporo-maxillaire

**en** temporomandibular joint

**giltzadura tibioperoneoastragalino**

Ik. orkatilako giltzadura

94

**giltzadura-apofisi (4)**

Orno bakoitzean dauden apofisietako bakoitza; bi apofisi-pare dira: goikoak eta behekoak. Beheko ornoaren goiko giltzadura-apofisiak goiko ornoaren beheko giltzadura-apofisiek artikulatzen dira. Giltzadura-apofisien egitura diferentea da, bizkarrezur-eremuaren arabera.

**es** apófisis articular; proceso articular

**fr** processus articulaire; apophyse articulaire

**en** articular process

**giltzadura-aurpegi**

Ik. giltzadura-gainazal

95

**giltzadura-gainazal (4)**

Sin. giltzadura-aurpegi (4)

Kartilago hialinoz estalitako gainazala, beste hezur bateko gainazal baliokidearekin batera giltzadura bat osatzen duena.

**es** superficie articular; carilla articular

**fr** surface articulaire; facette articulaire; face articulaire

**en** articular surface; articular facet; articularis facies

96

**giltzadura-kapsula (4)**

Sin. kapsula artikular (3)

Giltzadura bat inguratzen duen mintz sinobialez tapizatutako zuntzezko zakua, artikulazioa osatzen duten hezurren giltzadura-kartilagoaren ertzetan lotzen dena. Ehun konektibo trinkoz dago eratua, kolagenozko zuntz eta zuntz elastiko ugariarekin.

**es** cápsula articular; cápsula sinovial

**fr** capsule articulaire; capsule synoviale

**en** joint capsule; articular capsule; synovial capsule

97

**giltzadura-lerroarte (4)**

Sin. lerroarte artikular (4)

**es** interlínea articular

**fr** interligne articulaire

**en** joint space; articular interline

**ginglimo**

Ik. troklea

98

**goiko gorputz-adar (4)**

Giza anatomian, sorbaldak, besondoak, besaurreak, eskumuturrak eta eskuak eratzen duten gorputz-adarra.

**es** miembro superior; extremidad superior

**fr** membre supérieur

**en** upper limb; upper extremity

99

**goiko masailezur (4)**

Sin. goiko maxilar (4)  
Aurpegiko eskeletoa osatzen duen hezurra, beste aldeko bere kidekoarekin artikulatuz goiko masailaren hezurrezko zatia eratzen duena. Ahoaren gainean, betzuloaren azpian eta sudur-barrunbeen kanpoko aldean kokatuta dago.

**es** maxilar superior; maxila  
**fr** maxillaire; maxillaire supérieur  
**en** maxilla; upper jaw

**goiko maxilar**

Ik. goiko masailezur

**hanka**

Ik. zango

100

**hatz (4)**

Sin. atzamar (4)  
**es** dedo de la mano  
**fr** doigt de la main  
**en** finger

101

**hatz-hezur (4)**

Sin. atzamar-hezur (4); falange (4)  
Eskuko hatzetako hezurretako bakoitza. Gizakiak hiru falange izaten ditu hatz bakoitzean (lehenengoa edo proximala, bigarrena edo erdikoa eta hirugarrena edo distala), erpuruan izan ezik, bertan bi baizik ez baititu.

**es** falange  
**fr** phalange  
**en** phalanx

102

**hatz-koskor (4)**

Giza eskua itxita dagoenean hatzen oinaldean eta giltzaduretan eratzen diren konkorduretako bakoitza.

**es** nudillo  
**fr** noeud  
**en** knuckle

103

**hezur (4)**

Gizakiaren eskeletoa osatzen duten 206 zati gogorretako bakoitza. Hezurra eratzen duen ehuna batez ere kaltzio fosfatoz zurrundutako eta gogortutako ehun konektiboz dago osatua. Morfologiaren arabera, hezur luzeak, laburrak eta lauak bereizten dira. Hezurren kanpoko kortikala trinkoa da, barruan ehun arolez osatutako sare bat hartzen du, eta han kokatzen da hezur-muina.

**es** hueso  
**fr** os  
**en** bone; os

**hezur frontal**

Ik. bekoki-hezur

104

**hezur handi (4)**

Sin. karpoko hezur handi (4)  
Karpoko hezurretan handiena, ilara distalean kokatua. Kanpoan, eskafoide eta trapezoidearekin artikulatzen da; barruan, kako-hezurrarekin; goian, hezur semilunarrarekin, eta, behean, bigarren, hirugarren eta laugarren metakarpianoekin.

**es** hueso grande; hueso grande del carpo  
**fr** os capitatum; grand os  
**en** capitata bone; capitata

105

**hezur iliako (4)**

Sin. hezur koxal (4); hezur pelbiko (4)  
 Izterrezurra errain-hezurarekin lotzen duen hezur laua. Pelbiseko gerrikoa izenez ezagutzen den enborraren eta beheko gorputz-adarraren loturaren aurreko eta alboko zatiak eratzen ditu. Jatorrian ilion, iskion eta pubis izeneko hiru hezur independentez osatua badago ere, pertsona helduan kartilago trirradiatuak pieza bakarra osatuz elkartzten ditu hiru pieza horiek azetabulu-barrunbean.

**es** hueso ilíaco; hueso coxal; hueso innominado

**fr** os coxal; os iliaque

**en** coxal bone; pelvic bone; hip bone

**hezur koxal**

Ik. hezur iliako

**hezur kuneiforme**

Ik. falka-hezur

**hezur lakrimal**

Ik. malko-hezur

**hezur malar**

Ik. masailalbo-hezur

106

**hezur nabikular (4)**

Sin. tartsoko eskafoide hezur (4)  
 Tartsoko hezur laburra, astragaloaren eta hezur kuneiformeen artean kokatua, tartsoko aurreneko ilara osatzen duten guztietan handiena. Atzean astragaloarekin artikulatzen da, alboan kuboidearekin, eta aurrean hiru hezur kuneiformeekin.

**es** navicular; escafoides tarsiano

**fr** os naviculaire; scaphoïde tarsien

**en** navicular bone

**hezur okzipital**

Ik. garondo-hezur

107

**hezur parietal (4)**

Sin. pareta-hezur (3)  
 Garezur-gangako mintz-hezurra, garezuraren gainaldearen eta alboen atal handi bat eratzen duena. Aurrean, hezur frontalarekin artikulatzen da; atzean, okzipitalarekin, eta, beheko aldean, tenporalarekin.

**es** parietal; hueso parietal; hueso bregmático

**fr** os pariétal; pariétal

**en** parietal bone

**hezur pelbiko**

Ik. hezur iliako

108

**hezur piramidal (4)**

Sin. piramide-hezur (4)  
 Karpoko aurreneko ilarako hirugarren hezurra, alderantzikatutako piramide baten forma duena. Lau hezurrekin artikulatzen da: kubituarekin, hezur pisiformearekin, semilunarrarekin eta kako-hezurarekin.

**es** hueso piramidal; hueso triquetro

**fr** os triquétrum; os pyramidal

**en** triquetrum bone; pyramidal bone

109

**hezur pisiforme (4)**

Karpoko aurreneko ilarako hezur txikia, ilar baten antzeko forma eta pisua dituen (hortik datorkio izena, pisum hitzak ilarra esan nahi baitu latinez). Hezur piramidarekin soilik artikulatzen da.

**es** hueso pisiforme

**fr** os pisiforme

**en** pisiform bone



**110**

**hezur semilunar (4)**

Sin. ilargi-hezur (3)

Karpoko aurreneko ilarako bigarren hezurra, behera begirako konkabitatea duen ilargi-erdi baten forma duena. Bost hezurrekin artikulatzen da: erradioarekin, eskafoidearekin, karpoko hezur handiarekin, piramidalarekin eta kako-hezurrarekin.

**es** hueso semilunar  
**fr** lunatum; os semi-lunaire  
**en** lunate bone; semilunar bone

**111**

**hezur sesamoideo (4)**

Sesamo-ale baten itxura duen hezur txikia (hortik izena), tendoi batean (flexorean) txertatuta dagoena. Lehenengo hatz eta behatzaren artikulazio metakarpal eta metatarsal falangikoetan binaka kokatzen dira, giltzaduraren oinaldearen albo banatan. Tendoiak giltzadura-gainazalean edukiko lukeen marruskadura arintzen edo saihesten du.

**es** hueso sesamoideo  
**fr** os sésamoïde  
**en** sesamoid bone

**hezur tenporal**

Ik. loki-hezur

**hezur untziforme**

Ik. kako-hezur

**hezur zigomatiko**

Ik. masailalbo-hezur

**hezur- eta muskulu-sistema**

Ik. sistema muskuloeskeletiko

**112**

**hezur-sistema (4)**

**es** sistema óseo  
**fr** système osseux  
**en** skeletal system

**hezurdura**

Ik. eskeleto

**113**

**hobi iliako (4)**

Sin. ilion-hobi (3)

Ilion hezurreko hegalaren erraien aldeko kurbaren sakonunea. Hedaturaz, maila horretan dagoen zona osoa eta bertan aurkitzen diren pelbiseko erraiak.

**es** fosa iliaca  
**fr** fosse ilaque  
**en** iliac fossa

**hodi bertebral**

Ik. orno-hodi

**humero**

Ik. besahezur

**humeroaren tuberkulu nagusi**

Ik. trokiter

**humeroaren tuberkulu txiki**

Ik. trokin

**hurbileko falange**

Ik. falange proximal

**ilargi-hezur**

Ik. hezur semilunar

**114**

**ilion (4)**

Sin. ilion hezur (4)

Iskionarekin eta pubisarekin batera hezur iliakoa osatzen duten hiru hezurretako bat. Iliona beste biak baino gorago kokatua dago, eta pala iliakoa eratzen du.

**es** ilion  
**fr** ilion  
**en** ilium

**ilion hezur**

Ik. ilion

**ilion-arantza**

Ik. arantza iliako

**ilion-hobi**

Ik. hobi iliako

**ilion-psoas muskulu**

Ik. muskulu psoasiliako

**115**

**ipurmasaileko muskulu (4)**

Sin. muskulu gluteo (4)

**es** músculo glúteo

**fr** muscle fessier

**en** gluteal muscle

**irtengune**

Ik. apofisi

**116**

**iskion (4)**

Sin. iskion hezur (4)

Ilion eta pubis hezurrekin batera hezur illiako osatzen duten hiru hezur fetaletako bat. Koxalaren atzeko eta beheko zatian dago kokatua.

Tuberositate iskiatikoa –esertzerakoan oinarri gisa erabiltzen den irtenguneetako bat– iskion hezuraren zatia da.

**es** isquion

**fr** ischion

**en** ischium

**iskion hezur**

Ik. iskion

**iskion-arantza**

Ik. arantza ziatiko

**117**

**iztai (4)**

**es** ingle

**fr** aine

**en** groin

**iztai-arku**

Ik. iztai-lotailu

**118**

**iztai-lotailu (4)**

Sin. iztai-arku (3); arku krural (3)

Aurre-goiko arantza iliakotik pubiseko arantza edo tuberkulura doan zuntzeko banda.

**es** ligamento inguinal; arco inguinal; ligamento crural

**fr** ligament inguinal; arc inguinal; arcade crurale

**en** inguinal ligament; inguinal arch; crural ligament

**119**

**izter (4)**

Beheko gorputz-adarraren segmentu proximala, aldakatik belaunera doana. Izterrezurrak eusten dio.

**es** muslo

**fr** cuisse

**en** thigh

**120**

**izterreko biceps muskulu (4)**

Sin. biceps muskulu femoral (4)

Izterreko atzeko konpartimentuan iskionetik eta lerro latzetik peronearen burura doan muskulua, bi buru edo iturburu dituena, luzea bata eta laburra bestea.

**es** músculo bíceps femoral; músculo bíceps crural

**fr** muscle biceps fémoral; muscle biceps crural

**en** biceps femoris muscle

121

**izterreko koadrizeps muskulu (4)**

Sin. koadrizeps muskulu femoral (4)  
Izterreko muskulu hedatzaile handia, errotulan eta tibiaren aurreko tuberositatean tendoi komun batean elkartuta txertatzen diren lau buruk osatua: muskulu zuzenak, barruko eta kanpoko muskulu bastoak eta muskulu kruralak.

- es** músculo cuádriceps femoral; músculo cuádriceps crural
- fr** muscle quadriceps fémoral; muscle quadriceps crural
- en** quadriceps femoris muscle

122

**izterreko muskulu zuzen (4)**

- es** músculo recto femoral
- fr** muscle droit fémoral
- en** rectus femoris muscle

123

**izterrezur (4)**

Sin. femur (4)  
Hezur luzea, izterraren eskeletoa osatzen duena. Goiko aldean, edo alde proximalean, hezur iliakoarekin artikulatzen da, izterrezur-buruaren eta kotiloaren arteko giltzaduraren bitartez, eta beheko aldean, edo alde distalean, tibiarekin eta errotularekin. Gorputz osoko hezurrik luzeena da.

- es** fémur
- fr** fémur
- en** femur; thigh bone

**izterrezur-tibia giltzadura**

Ik. giltzadura femorotibial

124

**izterrezurraren buru (4)**

- es** cabeza femoral
- fr** tête fémorale
- en** femoral head

125

**izterrezurreko alboko epikondilo (4)**

Sin. izterrezurreko epikondilo lateral (4)  
Izterrezurraren kanpoko kondiloaren gainetik kokatzen den hezur-irtengunea.

- es** epicóndilo lateral del fémur; epicóndilo externo del fémur
- fr** épicondyle latéral du femur; épicondyle externe du femur
- en** lateral epicondyle of femur; external epicondyle of femur

**izterrezurreko epikondilo lateral**

Ik. izterrezurreko alboko epikondilo

**izterrezurreko epikondilo medial**

Ik. izterrezurreko erdialdeko epikondilo

126

**izterrezurreko erdialdeko epikondilo (4)**

Sin. izterrezurreko epikondilo medial (4)  
Izterrezurraren barneko kondiloaren gainetik kokatzen den hezur-irtengunea.

- es** epicóndilo medial del fémur; epicóndilo interno del fémur
- fr** épicondyle médial du femur; épicondyle interne du femur
- en** medial epicondyle of femur; internal epicondyle of femur

**jarrera anatomiko**

Ik. posizio anatomiko

127

**kako-hezur (4)**

Sin. hezur untziforme (4)  
Karpoko bigarren ilarako azkeneko hezurra. Bost hezurrekin artikulatzen da: piramidalarekin, hezur handiarekin, semilunarrarekin eta azkeneko bi metakarpianoekin.

**es** hueso ganchoso; hueso unciforme

**fr** hamatum; os crochu; os unciforme

**en** hamate bone; unciform bone

128

**kalkaneo hezur (4)**

Sin. orpo-hezur (4)  
Tartsoko hezurra, goian astragaloarekin eta aurrean kuboide hezurrearekin artikulatzen dena. Haren beheko aldeko tuberositatea zoruaren gainean jartzen da. Orpoa izeneko oin-zatiari dagokio.

**es** hueso calcáneo

**fr** calcanéus; os du talon

**en** calcaneus; heel bone

**kalkaneo-tendoi**

Ik. Akiles-en tendoi

**kapsula artikular**

Ik. giltzadura-kapsula

129

**karpó (4)**

Eskuaren eskeleto proximala, besaurreko hezurren eta metakarpoparen artean kokatua. Bi ilaratan antolatutako zortzi hezur laburrez osatua dago: aurreneko ilaran eskafoidea, semilunarra, piramidala eta pisiformea daude, eskumuturreko artikulazioa, zentzu hertsian, eratuz; bigarren ilaran, berriz, artikulazio karpometakarpianoa eratzen duten trapezioa, trapezoidea, hezur handia eta kako-hezurra bereizten dira.

**es** carpo

**fr** carpe

**en** carpus

130

**karpó-hezur (4)**

Sin. eskumuturreko hezur (4)  
Eskumuturreko edo karpoko zortzi hezurretako bakoitza.

**es** hueso del carpo; hueso de la muñeca

**fr** os du carpe; os du poignet

**en** carpal bone; bone of the wrist

**karpó-metakarpó giltzadura**

Ik. giltzadura karpometakarpiano

131

**karpoko erdiko giltzadura (4)**

Kondilo-itxurako giltzadura, karpoko lehenengo lerroko hezurak bigarren lerrokoekin lotzen dituena.

**es** articulación mediocarpiana

**fr** articulation médio-carpienne

**en** midcarpal joint

**karpoko eskafoide hezur**

Ik. eskafoide hezur

**karpoko hezur handi**

Ik. hezur handi

**klabikula**

Ik. lepauztai

**koadrizeps muskulu femoral**

Ik. izterreko koadrizeps muskulu

**132**

**kokots (4)**

**es** mentón

**fr** menton

**en** chin

**133**

**kokzix (4)**

Sin. uzkorno (4)

Bizkarrezurraren beheko muturra osatzen duen hezurrezko pieza, bolumenean aurrenekotik azkenekora murriztuz doazen eta elkar soldatuak dauden lau-sei orno-hasikinez osatua. Aurreneko orno kokzigeoa errain-hezurraren erpinarekin artikulatzen da. Uzkornoa errudimentarioa da gizakietan, eta beste animalia-espezie batzuen isatsaren aztarnatzat hartzen da.

**es** cóccix; hueso coccígeo

**fr** coccyx; os coccyx

**en** coccyx; tailbone

**134**

**kondilo (4)**

Hezur-irtengune biribildua, ardatz bat bestea baino luzeagoa duena (adibidez, izterrezurrekoa edo besahezurrekoa) eta beste hezur batekin artikulatzen dena.

**es** cóndilo

**fr** condyle

**en** condyle

**135**

**kondilo-itxurako giltzadura (4)**

Sin. giltzadura kondileo (4); elipse-

itxurako giltzadura (4)

Gainazal konbexu batek (kondilo batek) eta beste gainazal konkabo batek (barrunbe glenoideoak, adibidez) osatzen duten artikulazioa; belauneko, esate baterako. Mota honetako giltzadurek mugimendu posible guztiak egiten dituzte, errotaziokoa izan ezik.

**es** articulación condílea;

articulación elipsoidea

**fr** articulation condylienne;

articulation ellipsoïde

**en** condylar joint; ellipsoid joint

**kopeta-hezur**

Ik. bekoki-hezur

**136**

**korakoide apofisi (4)**

Sorbalda-hezurraren goiko ertzean kokatua dagoen tamaina handi samarreko apofisia, erdi-flexionatutako hatz baten forma duena (bele-mokoaren antza duelako hartzen du izen hori grezieraz). Bertan lotzen da bularreko muskulu txikia.

**es** apófisis coracoïdes; proceso coracoideo

**fr** processus coracoïde; apophyse coracoïde

**en** coracoid process

**kotilo**

Ik. azetabulu

**kranio**

Ik. garezur

137

**kubitu** (4)

Sin. ulna (3)

Erradio hezurarekin medialki kokatuta dagoen hezur luzea. Bien artean besaurreko eskeletoa osatzen dute.

Goiko aldean, humeroarekin eta erradioaren buruarekin artikulatzen da, ukondoko giltzadura osatuz; beheko aldean, erradio hezuraren barrunbe sigmoideoarekin artikulatzen da, urruneko giltzadura erradiokubitala osatuz.

**es** cúbito; ulna

**fr** ulna; cubitus

**en** ulna; cubitus

138

**kuboide hezur** (4)

Oineko hezurra, laburra, tartsoaren kanpoaldean kokatua. Kalkaneoarekin, nabikularrarekin eta azken bi metatartsianoekin giltzatzen da.

**es** hueso cuboides

**fr** os cuboïde

**en** cuboid bone

139

**kutxa toraziko** (4)

Sin. bular-kaxa (3)

Bular-ornoez, saihets-hezurrez eta bularrezurraz eratuta dagoen hezurrezko egitura. Muskuluek hezurren arteko guneak betetzen dituzte. Organo torazikoak torazikoei (bihotza, birrikak eta odol-hodi nagusiak) eusten eta babesa ematen die, eta arnasketarako biziki garrantzizkoa da.

**es** caja torácica; jaula torácica

**fr** cage thoracique

**en** thoracic cage; rib cage

**L**

Ik. gerri-orno

140

**lepaorno** (4)

Sin. orno zerbikal (4); C (4)

Lepoaldeko zazpi ornoetako bakoitza.

C letra maiuskularekin eta jarraian ondoz ondoko zenbakiarekin izendatzen dira.

**es** vértebra cervical; C

**fr** vertèbre cervicale; C

**en** cervical vertebra; C

141

**lepauztai** (4)

Sin. klabikula (4)

Sorbalda-gerrikoa osatzen duen hezurretako bat, kurbadura handirik gabeko S etzan baten forma duena. Mutur proximalean bularrezurrekin artikulatzen da, eta mutur distalean eskapula edo sorbalda-hezurarekin.

**es** clavícula

**fr** clavicle

**en** clavicle

142

**lepo anatomiko** (4)

Izterrezurraren nahiz besahezurraren buruari jarraitzen dion zona estuagoa, diafisiarekin lotzen dena.

**es** cuello anatómico

**fr** col anatomique

**en** anatomical neck

143

**lepo kirurgiko** (4)

Izterrezurrak edo besahezurrak trokanterren azpian duten estugunea.

**es** cuello quirúrgico

**fr** col chirurgical

**en** surgical neck

**lepogain**

Ik. garondo

**lerroarte artikular**

Ik. giltzadura-lerroarte

**Lisfranc-en giltzadura**

Ik. giltzadura tartsometatarsiano

**loki-barailletako giltzadura**

Ik. giltzadura tenporomandibular

**144**

**loki-hezur (4)**

Sin. hezur tenporal (4)

Garezurraren albo bietako hezur konposatua. Zati petrosoa garezur-oinaldearen osararen parte da, eta bertan daude kokatuak tinpano-kaxa eta barne-belarria; zati ezkatatsua, aldiz, garezur-gangaren osararen parte da. Loki-hezurra bost hezurrekin artikulatzen da: parietalarekin goian, okzipitalarekin atzean, esenoidearekin aurre eta barrualdean, malarrarekin aurre eta kanpoaldean, eta barailarekin behean, non artikulazio tenporomandibularra eratzen duten.

**es** temporal; hueso temporal

**fr** os temporal; temporal

**en** temporal bone

**145**

**lordosi (4)**

Bizkarrezurraren deformazio edo desbideratze fisiologikoa, lepoaldean nahiz gerrialdean atzeranzko ahurtasuna erakusten duena. Kurbadura hori gehiegizkoa denean, hiperlordosi edo lordosi patologikoa esaten zaio.

**es** lordosis

**fr** lordose

**en** lordosis

**146**

**lotailu (4)**

Ehun konektibozko zuntz trinko eta gogorrez osatutako banda, bi hezur edo kartilago mugikor lotzen dituena.

**es** ligamento

**fr** ligament

**en** ligament

**147**

**lotailu albokide (4)**

Giltzadura bati (bereziki belauz eta ukondoaz ari garenean, baina baita beste giltzadura askori ere) albo banatatik egonkortasuna ematen dioten lotailuetako bakoitza. Bi lotailu izaten dira: lotailu albokide laterala (kanpoaldetik) eta lotailu albokide mediala (barnealdetik).

**es** ligamento colateral

**fr** ligament collatéral

**en** collateral ligament

**148**

**maleolo (4)**

Zangoaren beheko muturrean dauden hezurrezko irtenguneetako bakoitza, kanpoko eta barnekoa. Lehena, kanpoko maleoloa, peronearen beheko muturrak osatzen du; bigarrena, barneko maleoloa, tibiaren irtengunea da.

**es** maléolo

**fr** malléole

**en** malleolus

**149**

**malko-hezur (4)**

Sin. hezur lakrimal (4); ungis (4)  
Garezurreko mintzezko hezur lau txikia. Begi-orbitaren barnean dago, malko-guruinen ondoan.

**es** hueso lacrimal; unguis

**fr** os lacrymal; unguis

**en** lacrimal bone

**mami-nukleo**

Ik. nukleo mamitsu

**150**

**masailalbo-hezur (4)**

Sin. hezur malar (4);  
hezur zigomatiko (4)

**es** hueso malar; hueso cigomático

**fr** os malaire; os zygomatique

**en** malar bone; zygomatic bone; cheekbone

**mehaka**

Ik. aldaka

**151**

**menisko (4)**

Fibrokartilagozko diskoa, ilargi-formakoa, giltzadura-gainazalen artean kokatuta egonik haien bat-etortze edo kongruentzia areagotzen duena.

Belaunekoak dira ezagunenak (mediala eta laterala), eta nahiko sarritan urratu eta hausten dira, barrukoak bereziki.

**es** menisco

**fr** ménisque

**en** meniscus

**metakarpiano**

Ik. metakarpo-hezur

**152**

**metakarpo-hezur (4)**

Sin. metakarpiano (4)

Karpoa lehen falangeekin lotzen duten bost hezurretako bakoitza.

**es** metacarpiano; hueso metacarpiano

**fr** métacarpien; os métacarpien

**en** metacarpal bone; metacarpal

**metatarsiano**

Ik. metatarsio-hezur

**153**

**metatarsio-hezur (4)**

Sin. metatarsiano (4)

Tartsoaren eta falangeen artean kokatuak dauden bost hezurretako bakoitza.

**es** metatarsiano; hueso metatarsiano

**fr** métatarsien; os métatarsien

**en** metatarsal bone; metatarsal

**mokor**

Ik. aldaka

**154**

**muskulatura (4)**

Gorputzeko muskulu ildaskatu edo eskeletikoen multzoa.

**es** musculatura

**fr** musculature

**en** musculature

**155**

**muskulu (4)**

Sin. gihar (3)

Uzkurtzeko gaitasuna duten zuntzez osatutako ehuna. Bi eratako muskuluak daude: batetik, eskeletikoak edo ildaskatuak, borondatearen arabera uzkurtzen direnak, eta, bestetik, lisoak, erraien paretak eta odol-hodiak estali eta nahi gabe uzkurtzen direnak.

**es** músculo

**fr** muscle

**en** muscle

**156**

**muskulu abduktore (4)**

Sin. muskulu urruntzaile (4)

Gorputzaren erdiko lerroetik edo gorputz-adar baten ardatzetik organo edo zati bat urruntzen duen muskulua.

**es** músculo abductor; músculo separador

**fr** muscle abducteur

**en** abductor muscle

**157**

**muskulu aduktoare (4)**

Sin. muskulu hurbiltzaile (4)

Gorputzaren erdiko lerrorantz edo gorputz-adar baten ardatzerantz organo edo zati bat hurbiltzen duen muskulua.

**es** músculo aductor; músculo aproximador

**fr** muscle adducteur

**en** adductor muscle



158

**muskulu basto (4)**

Izterreko koadrizepsaren osagai diren hiru muskuluetakoko bakoitza: albokoa edo laterala, erdialdekoa edo mediala eta tartekoa edo krurala.

**es** músculo vasto

**fr** muscle vaste

**en** vastus muscle

159

**muskulu bikiak (4)**

Sin. muskulu gastroknemio (4)  
Zangoaren atzealdean kokatutako bi muskulu txikiek osatzen duten muskulua, soleoarekin batera zangoko trizepsa osatzen duena.

**es** músculos gemelos; músculo gastrocnemio

**fr** muscle gastrocnémien; muscles jumeaux

**en** gastrocnemius muscle; gemelli muscle

**muskulu depresore**

Ik. muskulu jaistaile

**muskulu estentsore**

Ik. muskulu hedatzaile

160

**muskulu**

**esternokleidomastoideo (4)**

Lepoko muskulu zeharria, klabikulatik eta bularrezur-kirtenetik mastoideo apofisira eta goiko lerro okzipitalera hedatzen dena. Lau buruk (esternookzipitalak, esternomastoideoak, kleidookzipitalak eta kleidomastoideoak) osatzen dute.

**es** músculo esternocleidomastoideo

**fr** muscle sterno-cléido-mastoïdien

**en** sternocleidomastoid muscle

**muskulu flexore**

Ik. muskulu tolestaile

**muskulu gastroknemio**

Ik. muskulu bikiak

**muskulu gluteo**

Ik. ipurmasaileko muskulu

161

**muskulu hedatzaile (4)**

Sin. muskulu estentsore (3)  
Gorputz-atalen bat (gehienetan gorputz-adar bat izan ohi da) erdiko ardatzetik urrun zabaldu edo hedatzen duen muskulua. Bestela esanda: hezurren arteko angelua handitzen duen muskulua, besaurrea besoarekin lerrotatzen duena, esaterako.

**es** músculo extensor

**fr** muscle extenseur

**en** extensor muscle

**muskulu hurbiltzaile**

Ik. muskulu aduktore

**muskulu infraespinoso**

Ik. arantza azpiko muskulu

162

**muskulu jaistaile (4)**

Sin. muskulu depresore (3)  
Gorputzeko egitura, organo edo atal bat beheratzen duen muskulua.

**es** músculo depresor

**fr** muscle abaisseur

**en** depressor muscle

163

**muskulu jasotzaile (4)**

Gorputzeko egitura, organo edo atal bat jasotzen duen muskulua.

**es** músculo elevador

**fr** muscle éleveur

**en** levator muscle

164

**muskulu peroneo (4)**

Sin. perone-muskulu (4);

fibula-muskulu (3)

Peronetik metatartso-hezurretara hedatzen diren hiru muskuluetako bakoitza: luzea, laburra eta hirugarrena (beti agertzen ez dena).

**es** músculo peroneo; músculo fibular

**fr** muscle fibulaire; muscle péronier

**en** fibular muscle; peroneus muscle

165

**muskulu pronatzaile (4)**

Pronazio-mugimendua egiten duen muskulua.

**es** músculo pronador

**fr** muscle pronateur

**en** pronator muscle

166

**muskulu psoasiliako (4)**

Sin. ilion-psoas muskulu (4)

**es** músculo psoasílfaco; músculo iliopsoas

**fr** muscle ilio-psoas; muscle psoas-iliaque

**en** iliopsoas muscle

167

**muskulu soleo (4)**

**es** músculo sóleo

**fr** muscle soléaire

**en** soleus muscle

**muskulu subeskapular**

Ik. eskapula azpiko muskulu

168

**muskulu supinatzaile (4)**

Supinazio-mugimendua egiten duen muskulua, besahezurraren alboko epikondiloan sortu eta erradioaren alboko aurpegian txertatzen dena.

**es** músculo supinador

**fr** muscle supinateur

**en** supinator muscle

**muskulu supraespinoso**

Ik. arantza gaineko muskulu

169

**muskulu tenkatzaile (4)**

Sin. muskulu tentsore (3)

**es** músculo tensor

**fr** muscle tenseur

**en** tensor muscle

**muskulu tentsore**

Ik. muskulu tenkatzaile

170

**muskulu tolestaille (4)**

Sin. muskulu flexore (3)

Uzkurdura bidez gorputz-adar edo zati bat tolesten duen muskulua. Bestela esanda, hezurren arteko angelua txikitzen duen muskulua; adibidez, besoa ukondoaren mailan tolesten duena edo erpurua esku-ahurrerantz eramaten duena.

**es** músculo flexor

**fr** muscle fléchisseur

**en** flexor muscle

**muskulu urruntzaile**

Ik. muskulu abduktore

171

**muskulu zerradun (4)**

Sin. zerra muskulu (4)

Jatorri konplexua eta zerra-forma duten gorputz-enborreko muskuluetako bakoitza. Gehienetan, ornoetatik edo saihets-hezurretatik sortzen dira.

**es** músculo serrato

**fr** muscle dentelé

**en** serratus muscle

172

**muskulu-lotune** (4)

Muskulu bat hezurrean lotu edo finkatzen den gunea. Zuzeneko lotunea izan daiteke, zuntz muskularrek berek egina, baita tendoi edo aponeurosi bat baliatuz gertatutakoa ere.

**es** inserción muscular

**fr** insertion musculaire

**en** muscle attachment

173

**nerbio-sustrai** (4)

**es** raíz nerviosa; raíz neural

**fr** racine nerveuse

**en** nerve root

174

**nukleo mamitsu** (4)

Sin. mami-nukleo (3)

Ornoarteko diskoaren erdialdeko zati biguna, eraztun zundunak inguratua. Herniatu egin daiteke, eta, nerbio-sustrai bat konprimatzen badu, ziatika eragin dezake.

**es** núcleo pulposo; núcleo discal

**fr** noyau pulpeux; noyau gélatineux

**en** nucleus pulposus; pulpy nucleus

175

**odontoide apofisi** (4)

Sin. axisaren hortz (3)

Axisaren orno-gorputzaren goiko aldean kokatua dagoen irtengune zilindrokonikoa, hortz baten antza duena. Han artikulatzen da atlas ornoa, eta pibote gisa funtzionatzen du harentzat.

**es** apófisis odontoides; diente del axis; proceso odontoideo

**fr** dent de l'axis; apophyse odontoïde

**en** dens axis; odontoid process

176

**oin** (4)

Beheko gorputz-adarraren zati distal artikulatua, gizakia zutik dagoenean lurra ukitzen duena; tartsoak, metatartsoak eta behatzek osatzen dute.

**es** pie

**fr** pied

**en** foot

**oin-bizkar**

Ik. oinbular

177

**oin-zola** (4)

Sin. oinazpi (4)

Oinaren azpialdea, ganga konkabo moduan orpotik behatzetaraino hedatua, zutikako egoeran zein ibiltzean zorua ukitzen duena.

**es** planta del pie

**fr** plante du pied

**en** foot sole

**oinazpi**

Ik. oin-zola

178

**oinbular** (4)

Sin. oingain (3); oin-bizkar (3)

Giza oinaren gainaldeko zatia, arku-formakoa, orkatilatik behatzetaraino doana.

**es** empeine; dorso del pie; arco del pie

**fr** cou-de-pied

**en** instep

**oingain**

Ik. oinbular

179

**olekranon (4)**

Kubituaren goiko muturreko apofisi bertikala, besahezurraren olekranon-barrunbean ahokutzen dena. Epikondiloarekin eta epitrokleararekin batera, ukondoko hiru koskorrak osatzen dituzte.

**es** olécranon

**fr** olécrane

**en** olecranon

**omoplato**

Ik. eskapula

**orbita**

Ik. betzulo

180

**orkatila (4)**

Oinaren eta zangoaren arteko atala, maleoloak barne hartzen dituena.

**es** tobillo

**fr** cheville

**en** ankle

181

**orkatilako giltzadura (4)**

Sin. giltzadura tibioperoneoastragalino (4); talus-zango giltzadura (4) Zangoko hezurak (tibia eta peronea) oineko hezurrekin (tartsoarekin) lotzen dituen artikulazioa. Troklea motako giltzadura da, 70° inguruko flexio-estentsioko mugimenduak besterik ahalbidetzen ez duena.

**es** articulación del tobillo; articulación tibioperoneoastragalina;

**fr** articulation de la cheville; articulation tibio-fibulo-tarsienne; articulation talocrurale

**en** ankle joint

182

**orno (4)**

Bizkarrezurra eratzen duten hezurrezko 33-34 segmentuetako bakoitza. Osagai hauek bereizten dira ornoetan: masa zilindriko trinko edo gorputza (aurrealdean), zulo bertebrala, apofisi izeneko luzakin edo irtenguneak (zorrotzak, zeharkakoak eta artikularrak, muskulu edo lotailuekin lotzeko baliatzen direnak), laminak (apofisi zorrotzetik giltzadura-apofisietara doazenak) eta pedikuluak (atzeko arkua orno-gorputzarekin lotzen dutenak). Orno guztien artean hodi edo tunel moduko bat osatzen dute barrualdean, eta bertan orno-muina dago kokatua.

**es** vértebra

**fr** vertèbre

**en** vertebra

**orno dorsal**

Ik. bizkar-orno

183

**orno kokzigeo (4)**

Kokzix izeneko hezurra osatzen duten lau edo bost ornoetako bakoitza. Elkarren artean fusionatuak daude, eta ez daukate inolako mugikortasunik.

**es** vértebra coccígea

**fr** vertèbre coccygienne

**en** coccygeal vertebra; caudal vertebra

**orno lunbar**

Ik. gerri-orno

**orno sakro**

Ik. errain-orno

**orno toraziko**

Ik. bizkar-orno

**orno zerbikal**

Ik. lepaorno

184

**orno-gorputz (4)**

Ornoaren aurreko segmentu trinko eta zilindrikoa.

**es** cuerpo vertebral  
**fr** corps vertébral  
**en** vertebral body

185

**orno-hodi (4)**

Sin. bizkarrezur-hodi (4); hodi bertebral (3)

Hezurrez eta aponeurosiz osatutako kanala, ornoen arkuaren aurrean eta orno-gorputzen atzean kokatua. Orno-muina, meningeak eta ornoen sustraiak hartzen ditu bere barruan, eta zulo okzipitalarekin jarraitzen du goiko aldean.

**es** conducto raquídeo; conducto espinal; canal vertebral  
**fr** canal vertébral; canal rachidien  
**en** vertebral canal; spinal canal; vertebral duct

**orno-muin**

Ik. bizkarrezur-muin

186

**ornoaren pedikulu (4)**

Orno-arkuaren alde bakoitzeko oinaldea, laminak orno-gorputzarekin lotzen dituen.

**es** pedículo vertebral  
**fr** pédicule vertébral  
**en** vertebral pedicle

187

**ornoarteko disko (4)**

Elkarren segidan dauden orno-gorputzen artean tartekatzen diren disko elastikoetako bakoitza.

Kanpoaldean zuntzezko eraztun batez eta barnealdean nukleo mamitsu batez eratuta daude.

**es** disco intervertebral  
**fr** disque intervertébral  
**en** intervertebral disk

188

**ornoarteko giltzadura (4)**

**es** articulación intervertebral  
**fr** articulation intervertébrale  
**en** intervertebral joint

**orpazurda**

Ik. Akiles-en tendoi

189

**orpo (4)**

Oinaren atzealde, orkatilaren azpikoa. Kalkaneoak osatzen du haren eskeletoa.

**es** talón  
**fr** talon  
**en** heel

**orpo-hezur**

Ik. kalkaneo hezur

**pareta-hezur**

Ik. hezur parietal

**patela**

Ik. errotula

**patela-lotailu**

Ik. tendoi errotuliano

190

**pelbis (4)**

Beheko gorputz-adarra enborrarekin lotzen duen hezurrezko gerrikoa. Atzealdean, errain-hezurak eta kokzixak osatzen dute, eta, alde banatan eta aurrealdean, bi hezur koxalek.

**es** pelvis  
**fr** pelvis; bassin  
**en** pelvis

191

**perone hezur (4)**

Sin. fibula (3)

Zangoaren kanpoaldean, tibiaren alboan eta zertxobait atzerago kokaturiko hezur luzea eta estua. Goian tibiarekin eta behean tibiarekin eta astragaloarekin artikulatzen da.

**es** peroné; fibula

**fr** fibula; péroné

**en** fibula; perone; calf-bone

**perone-muskulu**

Ik. muskulu peroneo

**pibote-itxurako giltzadura**

Ik. trokoida

**piramide-hezur**

Ik. hezur piramidal

192

**plexu brakial (4)**

Sin. beso-plexu (4); besoko sare (3)

Azkeneko lau nerbio zerbikalen eta lehenengo nerbio torazikoaren aurreko adarren artean sortzen diren anastomosi edo loturek osatutako sarea. Goiko gorputz-adarraren inerbazio osoaz arduratzen da.

**es** plexo braquial

**fr** plexus brachial

**en** brachial plexus

193

**plexu lunbar (4)**

Sin. gerri-plexu (4)

L1 ornotik L4 ornora bitarteko nerbio errakideoen aurreko adarren artean sortzen diren anastomosi edo loturek osatutako sarea. T12 ornoko nerbioak ere hartzen du parte plexuaren sorreran.

**es** plexo lumbar

**fr** plexus lombaire

**en** lumbar plexus

194

**posizio anatomiko (4)**

Sin. jarrera anatomiko (4)

Anatomia ikasteko, konbentzioz onartutako postura edo jarrera erreferentziakoa: gorputza, tente (zutik); burua, aurrerantz begira; besoak, beherantz luzatuak, gorputzaren albo banatan; esku-ahurrak, aurrerantz; hatz-puntak, aurrerantz begira; zangoak, luzatuta eta zertxobait bananduta; eta behatz-puntak, aurrerantz jarrita.

**es** posición anatómica

**fr** position anatomique

**en** anatomic position

195

**pubis (4)**

Sin. pubis hezur (4)

Ilion eta iskion hezurrekin batera hezur iliakoa osatzen duen hezurra. Jaio ondoren fetuan independenteak diren bi pubis hezurrek bat egiten dute, pubisaren aurreko alde osoa betetzen duen sinfisia eratuz.

**es** pubis

**fr** pubis

**en** pubis

**pubis hezur**

Ik. pubis

196

**pubiseko sinfisi (4)**

Gorputzaren erdiko planoan bi pubis hezurren baturak aurrealdean sortzen duen artikulazio kartilaginosa, ez oso mugikorra.

**es** sínfisis del pubis

**fr** symphyse pubienne

**en** pubic symphysis

**S**

Ik. errain-orno

197

**saihets-hezur (4)**

Gizakiaren gorputz-alboetako paretak zurruntzen dituzten hogeita lau hezur luze, zapal eta kurbatuetako bakoitza. Saihets-hezurrek osatzen dute kutxa torazikoa, bizkarrezurrekin eta bularrezurrekin batera birikak eta bihotza babestu, eta arnasketaren mekanismoan tresna pasibo gisa jokatzen duena. Aurreko aldean, bularrezurrean lotzen dira, eta, atzeko aldean, bizkarrezurrean.

**es** costilla

**fr** côte

**en** rib

198

**saihets-hezur aizun (4)**

Sin. saihets-hezur faltsu (4)  
Bularrezurrera iristeko beste saihets batzuekin elkartzen den saihets-hezurra. Hiru pare dira.

**es** costilla falsa

**fr** fausse côte

**en** false rib

**saihets-hezur faltsu**

Ik. saihets-hezur aizun

**saihets-hezur flotatzaile**

Ik. saihets-hezur loka

**saihets-hezur jator**

Ik. benetako saihets-hezur

199

**saihets-hezur loka (4)**

Sin. saihets-hezur flotatzaile (3)  
Sabelaldeko muturra askea duten saihets-hezurretako bakoitza. Ez dira bularrezurrean lotzen, ezta gainean duten saihets-hezurrean ere. Gizakiaren kasuan, azken biak dira, goitik hasita.

**es** costilla flotante

**fr** côte flottante

**en** floating rib

**sakro hezur**

Ik. errain-hezur

**sakro-ilion giltzadura**

Ik. giltzadura sakroiliako

200

**sinartrosi (4)**

Sin. giltzadura mugiezin (4)  
Mugimendu nabaririk gabeko giltzadura-mota; zuntz konektibo oso laburrez edo kartilago hialinoz estu-estu lotutako hezurren gainazalek elkar ukitzen dute ia, josita baleude bezala, batetik bestera tarterik utzi gabe. Garezurreko josturak dira sinartrosien adibide.

**es** sinartrosis; articulación inmóvil

**fr** synarthrose; articulation immobile

**en** synarthrosis

201

**sindesmosi (4)**

Elkarrengandik urrun dauden bi hezur zuntzezko ehun baten bidez (lotailluz edo zuntzezko mintz bidez) lotzen dituen giltzadura-mota.

**es** sindesmosis

**fr** syndesmose

**en** syndesmosis

**sinfisi**

Ik. anfiartrosi

202

**sinkondrosi (4)**

Bi kartilagoren artean, esaterako okzipitalaren apofisi basilarraren eta esfenoidearen gorputzaren artean, biak oraindik kartilaginosoak direnean eratzen den mugimendurik gabeko artikulazioa. Osifikazioa gertatzen denean, bi giltzadura-gainazalak fusionatu egiten dira normalean, aipatu giltzaduran gertatzen den bezala.

**es** sincondrosis

**fr** synchondrose

**en** synchondrosis

203

**sistema muskuloeskeletiko (4)**

Sin. hezur- eta muskulu-sistema (3)

Giza anatomia osatzen duten hezur eta muskuluen sistema.

**es** sistema musculoesquelético

**fr** système musculosquelettique

**en** musculoskeletal system

204

**sorbaldak (4)**

Sin. besaburu (4)

Giza gorputzaren lepo-oinaldeko alde bakoitzean kanporantz proiektatzen diren zatietako bakoitza, besoaren eta gorputzaren arteko giltzadurez, hezurrez eta muskuluez eratua.

**es** hombro

**fr** épaule

**en** shoulder

**sorbaldak-gerriko**

Ik. eskapula-gerriko

**sorbaldak-hezur**

Ik. eskapula

205

**sorbaldako giltzadura (4)**

Sin. giltzadura glenohumeral (4)

Enartrosien motako giltzadura, besahezuraren burua sorbaldak-hezurreko barrunbe glenoideoarekin lotzen duena.

**es** articulación del hombro; articulación glenohumeral

**fr** articulation de l'épaule; articulation gléno-humérale

**en** shoulder joint; glenohumeral joint

**T**

Ik. bizkar-orno

**talus**

Ik. astragalo

**talus-zango giltzadura**

Ik. orkatilako giltzadura

206

**tartso (4)**

Oinaren atzealdeko hezurren multzoa, zangoko hezurren eta metatartso-hezurren artean dagoena. Bi ilaratan antolatutako zazpi hezurrek osatzen dute: astragaloak eta kalkaneoak atzeko ilaran, eta eskafoideak, kuboideak eta hiru hezur kuneiformeek aurreko ilaran.

**es** tarso

**fr** tarse

**en** tarsus

**tartso-metatartso giltzadura**

Ik. giltzadura tartsometatartsiano

**tartsoaren zeharkako giltzadura**

Ik. tartsoko erdiko giltzadura

207

**tartsoko erdiko giltzadura (4)**

Sin. Chopart-en giltzadura (4);

tartsoaren zeharkako giltzadura (4)

Atze-oina tarteko oinarekin lotzen duen giltzadura. Bertan bi artikulazio bereizten dira, bata bestearen segidan kokatuak: astragaloeskafoidoa eta kalkaneokuboideoa.

**es** articulación mediotarsiana; articulación de Chopart; articulación transversa del tarso

**fr** articulation médio-tarsienne; articulation de Chopart; articulation transverse du tarse

**en** midtarsal joint; Chopart's joint; transverse tarsal joint

**tartsoko eskafoide hezur**

Ik. hezur nabikular



208

**tendoi (4)**

Zuntzeko banda zuria, luzexka eta erresistentea, muskulu bat eta egitura mugikor bat (adibidez, hezur bat) elkarrekin lotzen dituena. Tendoi batzuk mintz sinobialean bilduta daude –eskuko muskulu tolestaileak, esaterako– beren ibilbidearen zati bat zorro baten barruan egiten baitute, edo ehun konektibo laxozko paratendoi batez inguratuta bestela –eskuko muskulu hedatzaileen kasuan, adibidez– azalaren azpian lerratu ahal izateko. Tendoiak gogorak eta malguak izan ohi dira.

**es** tendón

**fr** tendon

**en** tendon

209

**tendoi errotuliano (4)**

Sin. belaunezur-tendoi (4); patela-lotailu (4)  
Belaunezuraren muturretik tibiako tuberositatera doan zuntzeko banda. Bi hezur-egitura elkartu edo lotzea da haren berezitasuna. Koadrizepsaren tendoiarekin batera hartzen du parte belaunaren mugimenduan, eta zangoaren estentsioa edo hedapena ahalbidetzen du.

**es** tendón rotuliano; ligamento patelar

**fr** ligament patellaire; tendon rotulien

**en** patellar ligament; patellar tendon

210

**tendoi-lotune (4)**

Mobilizatu beharreko hezuraren gainean tendoia lotu edo finkatzen den gunea.

**es** inserción tendinosa

**fr** insertion du tendon

**en** tendon insertion

211

**tibia (4)**

Zangoko hezur mediala, peronearekiko paralelo dagoena. Goiko epifisia izterrezurrarekin artikulatzen da, eta behekoa astragaloarekin eta peronearekin. Aurreko eta barruko alde azalpekoa du; horregatik, oso mingarriak dira zona horretan hartutako kolpeak.

**es** tibia

**fr** tibia

**en** tibia; shank bone; shin bone

212

**torax (4)**

Sin. barrunbe toraziko (4)  
Lepoaren eta sabelaren arteko gorputz-zatia, gorputz-enborraren aurrealdeko edo goialdeko barrunbea. Haren barnean, zirkulazio- eta arnas aparatuen organo nagusiak daude. Saihets-hezurrek, bizkarrezur torazikoak eta bularrezurrak osatzen dute toraxaren eskeletoa.

**es** tórax; cavidad torácica

**fr** thorax; cavité thoracique

**en** thorax; thoracic cavity

213

**trapezio hezur (4)**

Karpoko bigarren ilarako hezurra, lau hezurrekin artikulatzen dena: eskafoidearekin, trapezoidearekin eta lehen nahiz bigarren metakarp-hezurrekin, hain zuzen ere.

**es** hueso trapecio

**fr** os trapèze

**en** trapezium bone

214

**trapezoide hezur (4)**

Karpoko bigarren ilarako hezurra, lau hezurrekin artikulatzen dena: goian, eskafoidearekin; behean, bigarren metakarpo-hezurrarekin; kanpoan, trapezioarekin, eta, barruan, lehen metakarpo-hezurrarekin.

**es** hueso trapezoide

**fr** os trapézoïde

**en** trapezoid bone

**trizeps muskulu brakial**

Ik. besoko trizeps muskulu

**trizeps sural**

Ik. zangoko trizeps muskulu

215

**trokanter nagusi (4)**

Izterrezurraren lepoa gorantz luzatzen duen prominentzia edo irtengunea, hainbat muskuluk txertatzeko baliatzen dutena.

**es** trocánter mayor

**fr** grand trochanter

**en** greater trochanter

216

**trokanter txiki (4)**

Izterrezurraren lepoaren eta diafisiaren artean kokatutako prominentzia edo irtengunea, muskulu psosiliakoak txertatzeko baliatzen duena.

**es** trocánter menor

**fr** petit trochanter

**en** lesser trochanter

217

**trokin (4)**

Sin. humeroaren tuberkulu txiki (4)  
Besahezurraren buruko bi tuberositateetatik txikiena, aurrealdean kokatua, eskapula azpiko muskuluak txertatzeko baliatzen duena.

**es** troquíñ; tuberosidad menor del húmero; tubérculo menor del húmero

**fr** petit tubercule de l'humérus; petite tubérosité de l'humérus; trochin

**en** lesser tubercle of humerus; lesser tuberosity of humerus

218

**trokiter (4)**

Sin. humeroaren tuberkulu nagusi (4)  
Besahezurraren buruko bi tuberositateetatik handiena, goi-kanpoaldean kokatua, arantza gaineko muskuluak eta muskulu biribil txikiak txertatzeko baliatzen dutena.

**es** troquíter; tuberosidad mayor del húmero; tubérculo mayor del húmero

**fr** grand tubercule de l'humérus; grosse tubérosité de l'humérus; trochiter

**en** greater tubercle of humerus; greater tuberosity of humerus

219

**troklea** (4)

Sin. ginglimo (4)

Mugimendu-ardatz bakarreko artikulazio-mota. Giltzadura-gainazaletako batek polea-forma daukanez gero, beste gainazala (gandor-formakoa) plano berean jira daiteke.

Mota honetako artikulazioa da humeroaren troklea, ukondoko artikulazioan.

**es** tróclea; articulación troclear; gínglimo

**fr** articulation trochléenne; trochlée; ginglyme

**en** hinge joint; trochlea; ginglymoid joint

220

**trokoide** (4)

Sin. pibote-itxurako giltzadura (4)

Giltzadura sinobiala, bi giltzadura-gainazalak pibote bat balira bezala kokatuak dituena. Hori dela eta, soilik luzeranzko ardatzean egin daitezke mugimenduak, hau da, errotazio medial eta laterala baino ez ditu onartzen.

**es** articulación trocoide; articulación en pivote

**fr** articulation trochoïde; articulation à pivot

**en** pivot joint

221

**tuberositate** (4)

Hezuraren prominentzia edo irtengunea, muskuluek eta lotailuek txertatzeko baliatzen dutena.

**es** tuberosidad

**fr** tubérosité

**en** tuberosity

222

**ukabil** (4)

Hatzak esku-zabalean bilduak dituen eskua.

**es** puño

**fr** poing

**en** fist

223

**ukondo** (4)

Giza besoaren eta besaurrearen arteko giltzadura; baita giltzadura horri dagokion eremu anatomikoa ere, atzealdekoa batik bat.

**es** codo

**fr** coude

**en** elbow

**ulna**

Ik. kubitua

**ungis**

Ik. malko-hezur

**urruneko falange**

Ik. falange distal

**uzkorno**

Ik. kokzix

**xifoide**

Ik. xifoide apofisi

**xifoide apendiz**

Ik. xifoide apofisi

224

**xifoide apofisi (4)**

Sin. xifoide apendiz (4); xifoide (4)  
Bularrezurraren behealdeko muturra, pertsona gazteetan oraindik kartilaginosoa eta zaharretan erabat hezurtua egon ohi dena.  
Bularrezurraren eta xifoide apendizaren arteko loturaren parean artikulatzen dira zazpigarren saihets-kartilagoak.

**es** apófisis xifoides; apéndice xifoides; proceso xifoideo; xifoides

**fr** processus xiphoïde; appendice xiphoïde; apophyse xiphoïde; xiphoïde

**en** xiphoid process; xiphoid appendix; xiphoid

225

**zaldi-buztan (4)**

Orno-muinaren bukaerako zatian sortzen diren eta lehenengo orno lunbarraren (L1 ornoaren) azpian kokatuta dauden nerbio-sustraien multzoa.

**es** cola de caballo; cauda equina

**fr** queue de cheval

**en** cauda equina

226

**zango (4)**

Sin. berna (4)  
Beheko gorputz-adarraren zatia, belaunaren eta orkatilaren artekoa.

**es** pierna

**fr** jambe

**en** leg

227

**zango (4)**

Sin. hanka (4)

Beheko gorputz-adarretako bakoitza. Goitik behera, izterrezur edo femurrak, belaunezurak, tibiak eta peroneak, eta orkatilak eta oineko hezurrek osatzen dute zangoaren eskeletoa.

**es** pierna

**fr** jambe

**en** leg

228

**zangoko trizeps muskulu (4)**

Sin. trizeps sural (4)

Zangoaren atzeko konpartimentuko muskulua, Akiles-en tendoia bidez elkartuta kalkaneoan txertatzen diren hiru buruk (muskulu soleoak, eta barruko nahiz kanpoko muskulu bikiek) osatzen dutena. Oinaren flexio plantarra egiteaz gain, berak ematen du ibilera edo jauzirako lehen bultzada ere.

**es** músculo tríceps sural

**fr** muscle triceps sural

**en** triceps surae muscle

229

**zangosagar (4)**

Sin. aztal (4)

Belaunaren eta orkatilaren arteko zango-zatiaren atzealde mamitsua, muskulu bikiek osatzen dutena.

**es** pantorrilla

**fr** mollet

**en** calf

230

**zeharkako apofisi (4)**

Ornoen arku neuraletik zeharkako noranzkoan albo banatara irteten den tamaina handi samarreko apofisia. Bizkarrezur torazikoan artikulazio kostotransbertsoak osatzen dituzte orno bakoitzean, dagokien saihets-hezurrarekin.

**es** apófisis transversa; proceso transverso

**fr** processus transverse; apophyse transverse

**en** transverse process

231

**zela-giltzadura (4)**

Sin. elkarrekiko ahokapen (4)

Artikulazio-mota: lotzen diren hezurretako baten gainazalak zela forma dauka, eta beste hezurrenarenak, berriz, zela horretan eseriko litzatekeen zaldizkoarena, kontrako norabidean dagoen barrunbe ahur-ganbil batean sartua.

**es** articulación en silla de montar; articulación por encaje recíproco

**fr** articulation en selle; articulation par emboîtement réciproque

**en** saddle joint

**zerra muskulu**

Ik. muskulu zerradun

232

**zifosi (4)**

Bizkarrezurraren deformazio edo desbideratze fisiologikoa, toraxaldean nahiz sakroaldean atzeranzko ganbiltasuna erakusten duena. Zifosia gehiegizkoa denean, hiperzifosiaz hitz egiten da.

**es** cifosis

**fr** cyphose

**en** kyphosis

## 2. HISTOLOGIA. ANATOMIA PATOLOGIKOA

### atal bigunak

Ik. zati bigunak

### bala

Ik. faszikulu

### borondatezko muskulu

Ik. muskulu eskeletiko

### 233

#### diafisi (4)

Hezur luzearen bi buruen (edo epifisien) arteko zati zuzen eta zilindrikoa. Ebakiduran, forma triangeluarra izaten du. Hezur-ehun trinkozko geruza bat da, eta hezur-muin koipetsuz betetako kanal neurala inguratzen du.

**es** diáfisis  
**fr** diaphyse  
**en** diaphysis; shaft

### 234

#### diploe (4)

Hezur arolezko geruza, garezur-ganga osatzen duten hezurren kanpoko eta barneko laminen artean kokaturik dagoena. Barruan, hezur-muin gorria dauka.

**es** díploe  
**fr** diploé  
**en** diploe

### 235

#### ehun konektibo (4)

Mesodermo enbrionariotik eratorritako ehuna, organoei eta gorputzeko beste egiturei eutsi eta elkarrekin lotzen dituena. Zelula arteko matrizea da haren osagai nagusia, eta, horrez gain, zelulak (makrofagoak, fibroblastoak eta mastozitoak) eta zuntzak (kolageno- eta elastina-zuntzak) ere izaten ditu. Dermisaren, tendoiaren, hezuraren, organo gehienetako paretaren eta abarren osagaia da.

**es** tejido conjuntivo; tejido conectivo  
**fr** tissu conjonctif  
**en** connective tissue

### 236

#### endomisio (4)

Muskulu ildaskatuaren zuntz muskular bakoitza inguratuz ezartzen den ehun konektibo fina, zuntz erretikularrez osatua batik bat.

**es** endomisio  
**fr** endomysium  
**en** endomysium

### 237

#### endostio (4)

Hezuraren muin-barrunbea tapizatzen duen ehun konektiboazko mintz fina. Bertan daude hezur-zelulen aitzindariak edo gurasoak.

**es** endostio  
**fr** endosteum  
**en** endosteum

238

**epifisi (4)**

Hezur luzeen mutur distaletako bakoitza, normalean diafisia baino zabalagoa izan ohi dena. Hazkundera-garaian, osifikazioko zentro sekundario batetik abiatuta gara daiteke, edo kartilagoz erabat osa daiteke, edo diafisitik hazkunde-kartilagoak berezi. Hezur-ehun arolaz osatua dago, eta haren trabekulen artean hezur-muin gorria azaltzen da.

**es** epífisis  
**fr** épiphyse  
**en** epiphysis

239

**epimisio (4)**

Muskulu ildaskatua inguratu eta estaltzen duen ehun konektiboko zorroa. Bertatik abiatzen dira zuntz muskularrak banantzen dituzten trenkadak. Muskuluaren lotuneko egiturekin (tendoi, periostio, eta abarrekin) duen loturagatik, epimisioak ezinbesteko egitekoa du uzkuorduren transmisioan.

**es** epimisio  
**fr** épimysium  
**en** epimysium

240

**faszikulu (4)**

Sin. bala (4)  
Funtzio fisiologiko bera duen muskulu-, nerbio- edo tendoi-zuntzezko sorta.

**es** fascículo; haz  
**fr** fascicule; faisceau  
**en** fascicle; bundle

241

**giltzadura-kartilago (4)**

Sin. kartilago artikular (4)  
Hezurren giltzadura-gainazalak estaltzen dituen kartilago hialino leun eta garbia. Giltzadurak jasan beharreko presioaren arabera, giltzadura-kartilagoaren lodiera ere aldatuz doa.

**es** cartílago articular  
**fr** cartilage articulaire  
**en** articular cartilage

**Havers-en erreten**

Ik. Havers-en kanal

242

**Havers-en kanal (4)**

Sin. Havers-en erreten (4)  
Hezur luzeen zona trinkoak luzetara zeharkatzen dituzten espazio baskular zilindrikoetako bakoitza, osteonaren erdiko gunea osatzen duena. Havers-en kanaletan odol-hodiak, endostioko zelulak eta nerbioak aurki daitezke.

**es** canal de Havers; conducto de Havers  
**fr** canal de Havers  
**en** Haversian canal

**Havers-en sistema**

Ik. osteona

243

**hazkunde-kartilago (4)**

Sin. kartilago epifisario (4);  
lotura-kartilago (4)  
Hezurraren epifisiko zona bitala,  
haurtzaroan hezurraren luzetarako  
hazkunda ziurtatzen duena.  
Erradiologikoki banda garden fin baten  
moduan azaltzen da.

- es** cartílago de crecimiento;  
cartílago de conjunción; cartilago  
epifisario  
**fr** cartilage de croissance; cartilage  
de conjugaison; cartilage  
diaphyso-épiphysaire  
**en** growth plate; epiphyseal  
cartilage; physis

244

**hezur arol (4)**

Sin. hezur trabekular (4)  
Matrizea plakazko edo hodizko sare  
batean (trabekulak) antolatua duen  
hezur-mota, hezur luzeen epifisietan  
aurkitzen dena. Trabekulen arteko  
guneak muinez beteta aurkitzen dira.

- es** hueso esponjoso; hueso  
trabecular  
**fr** os spongieux; os trabéculaire  
**en** cancellous bone; trabecular bone;  
spongy bone

245

**hezur endokondral (4)**

- es** hueso endochondral  
**fr** os enchondral; os endochondral  
**en** endochondral bone

**hezur erretikulatu**

Ik. hezur primario

**hezur kartilaginoso**

Ik. kartilagozko hezur

246

**hezur kortikal (4)**

% 70-90ean mineralizatua dagoen  
hezur trinkoa, hezur luzeetako diafisian  
muin-barrunbea inguratzen duena.  
**es** hueso cortical  
**fr** os cortical  
**en** cortical bone

247

**hezur labur (4)**

Sin. hezur motz (4)  
Hiru dimentsioetan tamaina bertsua  
duen hezurra, kortikal trinko batek  
estaltzen duen hezur-ehun arolez  
osatua. Karpoko edo tartsoko hezurrak,  
adibidez.

- es** hueso corto  
**fr** os court  
**en** short bone

**hezur laminar**

Ik. hezur sekundario

248

**hezur lau (4)**

Sin. hezur zapal (4)  
Hezur-ehun trinkozko bi geruzaz (edo  
taulaz) osatutako hezurra, bi geruza  
horien tartean hezur-ehun arolezko  
beste geruza bat duena. Horrelakoak  
dira garezur-ganga osatzen duten  
hezurrak: parietala, esaterako.

- es** hueso plano  
**fr** os plat  
**en** flat bone



249

**hezur luze (4)**

Luzera zabalera baino handiagoa duen hezurra: izterrezurra edo humeroa, adibidez. Hezur luzeak bi epifisi izaten ditu (goiko eta beheko muturrak, hezur arolez osatuak) eta diafisi edo gorputz bat erdian (hezur trinkoz eratua, barruan muin-barrunbea duela).

**es** hueso largo

**fr** os long

**en** long bone

**hezur menbranoso**

Ik. mintzezko hezur

**hezur motz**

Ik. hezur labur

250

**hezur primario (4)**

Sin. hezur erretikulatu (4)

Garapen enbrionarioan edo hezur-haustura baten konponketan agertzen den lehen hezur-ehuna.

**es** hueso primario; hueso reticular

**fr** os primaire; os réticulaire

**en** primary bone

251

**hezur sekundario (4)**

Sin. hezur laminar (4)

Heldutasun-prozesuaren barruan jatorrizko hezur-ehuna (hezur primarioa) ordeztzen duen hezur-ehunaren bigarren geruza.

**es** hueso secundario; hueso laminar

**fr** os lamellaire

**en** secondary bone; lamellar bone

**hezur trabekular**

Ik. hezur arol

252

**hezur trinko (4)**

**es** hueso compacto

**fr** os compact

**en** compact bone

**hezur zapal**

Ik. hezur lau

253

**hezur-muin (4)**

Hezur luzeetako barrunbeak eta hezur-ehun arolaren espazioak betetzen dituen ehun konektiboa. Konposizioa aldatu egiten da hezur batetik bestera: diafisi-kanalean, gantz-edukikoa eta kolore horikoa da (hezur-muin koipetsua edo horia); hezur laburretan eta hezur luzeen epifisietan, ordea, gorria. Odol-zelulen (globulu gorrien eta leukozitoen) serie mieloida ekoizteaz arduratzen da.

**es** médula ósea

**fr** moelle osseuse

**en** bone marrow

254

**kartilago (4)**

Tinkotasun handiko ehun konektibo ez-baskularizatua. Kondrozito izeneko zelulaz eta substantzia interstizial garden, elastiko, trinko eta erresistente batez osatua dago. Hiru kartilago-mota bereizten dira substantzia interstizialeko zuntzen arabera: hialinoa, elastikoa edo malgua eta fibrokartilagoa. Gizakien gorputzean giltzadura-gainazaletan, saihets-hezurren zati esternalean, laringean, trakea edo zintzurrestean, sudurrean eta belarri-hegalean dago kokatua, batik bat.

**es** cartílago

**fr** cartilage

**en** cartilage; gristle

**kartilago artikular**

Ik. giltzadura-kartilago

**kartilago epifisario**

Ik. hazkunde-kartilago

**kartilago kostal**

Ik. saihets-kartilago

255

**kartilagozko hezur (4)**

Sin. hezur kartilaginoso (4)

**es** hueso cartilaginoso  
**fr** os cartilagineux  
**en** cartilaginous bone

256

**kondrozito (4)**

Kondroblastotik datorren kartilago-ehuneko zelula esferikoa, zitoplasma-luzakin gabekoa, matrize zabal batekin inguratzen duena. Talde isogeniko esaten zaien bizpahiru zelulako multzotan azaltzen dira ehun kartilaginosoan.

**es** condrocito  
**fr** chondrocyte  
**en** chondrocyte

**lotura-kartilago**

Ik. hazkunde-kartilago

257

**metafisi (4)**

Hezur luzeetan, diafisiaren eta epifisien artean kokatua dagoen tartea, hazkunde-garaian hazkunde-kartilagoak betetzen duena.

**es** metafisis  
**fr** métaphyse  
**en** metaphysis

258

**mintzezko hezur (4)**

Sin. hezur membranoso (4)

**es** hueso membranoso  
**fr** os membraneux  
**en** membranous bone; membrane bone

**miozuntz**

Ik. muskulu-zuntz

259

**miozuntzexka (4)**

Muskulu ildaskatuko muskulu-zelulen luzetarako zuntzexketako bakoitza. Erregulariki errepikatutako sarkomeroz osatuak daude, eta itxura ildaskatua ematen diote muskuluari.

**es** miofibrilla  
**fr** myofibrille  
**en** myofibril

260

**muskulu eskeletiko (4)**

Sin. muskulu ildaskatu (4);

borondatezko muskulu (4)

Zeharka ildaskatutako zuntzak dituen muskulua.

**es** músculo esquelético; músculo estriado; músculo voluntario  
**fr** muscle squelettique; muscle strié; muscle volontaire  
**en** skeletal muscle; striated muscle; voluntary muscle

**muskulu ildaskatu**

Ik. muskulu eskeletiko

261

**muskulu-zuntz (4)**

Sin. miozuntz (4)

Muskulu-ehuna eratzen duen zelula luzanga eta uzkurkorra. Muskulu eskeletikoaren zuntza nukleo aniztuna da, eta miozuntz ugari ditu; muskulu kardiakoaren zuntzak, aldiz, nukleo bat edo bi besterik ez du.

**es** fibra muscular; miofibra  
**fr** fibre musculaire; myofibre  
**en** muscle fiber; myofiber

262

**osteoblasto (4)**

Hezur-muineko eta periostioaren geruza osteogenoko zelula gaztea, kuboidea edo prismatikoa, nukleo handikoa, hezurren oinarritzko substantzia (osteina) eratzen duena.

**es** osteoblasto

**fr** ostéoblaste

**en** osteoblast

263

**osteoklasto (4)**

Hezur-ehuneko zelula erraldoia, nukleo ugari dituena. Hezurraren eta kartilagoaren matrizea digeritu eta suntsitu egiten du, entzimen eraginez, eta hondakinak fagozitatzen ditu jarraian. Suntsitze hori ezinbestekoa da hezurraren hazkundera posible izan dadin.

**es** osteoclasto

**fr** ostéoclaste

**en** osteoclast

264

**osteona (4)**

Sin. Havers-en sistema (4)

Hezur-ehunaren egiturazko unitatea, Havers-en kanalak eta kanal hori inguratzen duten laminek sortua.

**es** osteona; sistema de Havers

**fr** ostéone; système de Havers

**en** osteon; Havers' system;  
Haversian system

265

**osteozito (4)**

Hezurreko zelula heldua, guztiz adarkatua, hezurraren barruko funtsezko substantzian egon ohi dena. Ez dauka jariatze-funtziorik.

Osteozitoek elkar anastomosatzen dute, horretarako kanaletan dauden luzapen finak baliatuz.

**es** osteocito

**fr** ostéocyte

**en** osteocyte

266

**perimisió (4)**

Epimisiotik prolongazio moduan abiatuz muskulua osatzen duten faszikuluetakako bakoitza inguratzen duen estalki konektiboa. Uzkuordura gertatzen denean, faszikulu bereko zuntz-muskularrek batera lan egin dezaten ahalbidetzen du, uzkuordurari indarra emanez. Odol-hodi eta nerbio-hariei pasatzen uzten die.

**es** perimisió

**fr** périmysium

**en** perimysium

267

**periostio (4)**

Hezurak giltzadura-gainazaletan izan ezik estaltzen dituen mintz mesenkimatosoa. Hazkunde garaian, zabaletara hazteko aukera ematen die hezurrei, eta, haustura bat gertatuz gero, hezur-kailua osatzen du. Inerbazio aberatsa duenez, sentikortasun ona du, minarekiko batez ere.

**es** periostio

**fr** périoste

**en** periosteum

268

**saihets-kartilago (4)**

Sin. kartilago kostal (3)

Saihets-hezurren aurreko muturra luzatu eta bularrezurrean artikulatzeko baliatzen den kartilagoetako bakoitza. Aurreneko zazpiak zuzenean lotzen dira bularrezurrean, hurrengo hirurak kartilago komun batean elkartzen dira, eta azkeneko biak libre geratzen dira.

**es** cartilago costal

**fr** cartilage costal

**en** costal cartilage

**Volkman-en hodi**

Ik. Volkman-en kanal

269

**Volkman-en kanal (4)**

Sin. Volkman-en hodi (4)

Hezur luzeetako kortikalean dauden zeharkako kanaletako bakoitza. Barruan, odol-hodiak eta nerbio amielinikoak hartzen dituzte. Havers-en kanalak elkarren artean lotzeaz gain, hezur-muineko barrunbearekin eta diafisiaren kanpoko aldearekin ere batzen dituzte.

**es** canal de Volkman; conducto de Volkman

**fr** canal de Volkman

**en** Volkman's canal

270

**zati bigunak (4)**

Sin. atal bigunak (4)

Gorputzeko ehun bigunak, eskeletoa ez gainerakoak (zuntzeko konektiboa, muskulu liso eta ildaskatuak, ehun adiposoa, nerbioak, odol-hodiak, eta abar).

**es** partes blandas; tejidos blandos

**fr** tissu mou

**en** soft tissues

### 3. FISILOGIA

271

**abdukzio** (4)

Sin. urrunketa (4)

Gorputz-adar batek edo haren zati batek egiten duen mugimendua; horren ondorioz, mugitzen den atala urrundu egiten da gorputzaren ardatzetik.

**es** abducción; separación

**fr** abduction

**en** abduction

272

**adukzio** (4)

Sin. hurbilketa (4)

Gorputz-adar batek edo haren zati batek egiten duen mugimendua; horren ondorioz, mugitzen den atala hurbildu egiten da gorputzaren ardatzera, alegia, gorputzaren erdiko lerroa.

**es** aducción; aproximación

**fr** adduction

**en** adduction

273

**aktina** (4)

Muskulu-zelulen protoplasmako harizpi-proteina; zelulari bere forma ematen dio, mintzeko proteinak finkatzen ditu, zelularen mugimenduetan parte hartu, eta miosinarekin batera zelula muskularren uzkuerdura eragiten du.

**es** actina

**fr** actine

**en** actin

**artikulatu**

Ik. giltzatu

274

**erlaxazio muskular** (4)

Sin. muskulu-erlaxazio (4)

**es** relajación muscular

**fr** relaxation musculaire

**en** muscle relaxation

275

**flexio** (4)

Zenbait giltzadurak ahalbidetzen duten mugimendua, bata bestearen segidan dauden bi hezurren arteko angelua estutzen duena.

**es** flexión

**fr** flexion

**en** flexion

276

**flexionatu** (4)

**es** flexionar

**fr** fléchir

**en** flex

277

**gaitasun funtzional** (4)

**es** capacidad funcional

**fr** capacité fonctionnelle

**en** functional capacity

278

**garezur-edukiera** (4)

**es** capacidad craneal; capacidad craneana

**fr** capacité crânienne

**en** cranial capacity

**giltzadura-likido**

Ik. likido sinobial

279

**giltzaduraren mugikortasun-tarte (4)**

- es** rango de movilidad articular;  
arco de movilidad articular  
**fr** amplitude des mouvements  
**en** range of motion

280

**giltzatu (4)**

- Sin. artikulatu (4)  
**es** articularse  
**fr** s'articuler  
**en** articulate against; articulate with

**hanka-puntetan ibili**

Ik. oin-puntetan ibili

281

**hartzaile nozizeptibo (4)**

- Sin. nozizeptore (4)  
**es** receptor nociceptivo; nociceptor  
**fr** récepteur nociceptif; récepteur de la douleur; nocicepteur  
**en** pain receptor; nociceptor

282

**hedapen (4)**

- Zenbait giltzadurak ahalbidetzen duten mugimendua, bata bestearen segidan dauden bi hezurren arteko angelua zabaltzen duena.  
**es** extensión  
**fr** extension  
**en** extension

283

**hedatu (4)**

- es** extender  
**fr** étendre; allonger  
**en** extend

284

**hezur-erresortzio (4)**

- Kaltzio ioia hezur-matrizetik odolera transferituz osteoklastoek hezur-ehuna suntsitzeko prozesua.  
**es** resorción ósea  
**fr** résorption osseuse  
**en** resorption; bone resorption

**hezurraren dentsitate**

Ik. hezurraren dentsitate mineral

285

**hezurraren dentsitate mineral (4)**

- Sin. hezurraren dentsitate (4)  
**es** densidad mineral ósea; densidad ósea  
**fr** densité minérale osseuse; densité osseuse  
**en** bone mineral density; bone density

**hezurtu**

Ik. osifikatu

**hezurtze**

Ik. osifikazio

**hurbilketa**

Ik. adukzio

286

**kaltzifikazio (4)**

- Osifikazioaren barruan gertatzen den prozesu fisiologikoa, ehun eta organoetan (kartilagoetan, adibidez) kaltzio fosfatoak eta karbonatoak finkatu eta metatzean datzana.  
**es** calcificación  
**fr** calcification  
**en** calcification

287

**kontrajarri (4)**

- es** oponerse  
**fr** s'opposer  
**en** oppose

288

**kontraktura (4)**

Muskulu baten edo gehiagoren uzkurdura luze eta nahi gabekoa, muskulu-zuntzaren lesiorik gabekoa. Ondorio gisa, zurruntasuna, mugimendu pasiboekiko erresistentzia handia eta giltzaduraren mugikortasun-tartearen murrizketa dakartza.

**es** contractura

**fr** contracture

**en** contracture

**kontrakzio muskular**

Ik. muskulu-uzkurdura

289

**likido sinobial (4)**

Sin. giltzadura-likido (4)

Mintz sinobialaren estaldura-endotelioak jariatzen duen likido hori, garden, likatsu eta labaingarria, giltzadurak lubrifikatzen dituena.

**es** líquido sinovial; líquido articular

**fr** liquide synovial; liquide articulaire

**en** synovial fluid; joint fluid

290

**lokomozio-aparatu (4)**

Gizakiaren mugimenduak posible egiten dituen aparatua, eskeletoak, giltzadurek eta muskuluek osatua.

**es** aparato locomotor

**fr** appareil locomoteur

**en** locomotor system

291

**miosina (4)**

Miozuntzekak osatzen dituen proteina, aktinarekin batera muskulu-uzkurduran funtzio garrantzitsua duena.

**es** miosina

**fr** myosine

**en** myosin

**muskulu-erlaxazio**

Ik. erlaxazio muskular

292

**muskulu-tonu (4)**

Sin. tonu muskular (4)

Zenbait muskuluk egoera normalean duten uzkurdura partzial eta iraunkorra, gorputzaren zenbait jarrerak hartzeko modua eman eta ariketa batzuetarako prest egotea ahalbidetzen duena.

**es** tono muscular

**fr** tonus musculaire

**en** muscular tonus

293

**muskulu-uzkurdura (4)**

Sin. kontrakzio muskular (4)

Muskulu baten ertzak edo muturrak laburtzea, estimulu egoki batek, nerbio-bulkadak normalean, sortua.

**es** contracción muscular

**fr** contraction musculaire

**en** muscle contraction

**nozizeptore**

Ik. hartzaile nozizeptibo

294

**oin-puntetan ibili (4)**

Sin. hanka-puntetan ibili (4)

**es** andar de puntillas

**fr** marcher sur la pointe des pieds

**en** toe walking; tiptoe walking

295

**orpoka ibili (4)**

**es** andar sobre el talón

**fr** marcher sur les talons

**en** heel walking

296

**osifikatu (4)**

Sin. hezurtu (4)

**es** osificarse

**fr** s'ossifier

**en** ossify; become ossified

297

**osifikazio (4)**

Sin. hezurtze (4)

Hezur-ehuna sortzeko prozesu histologikoa. Ehun konektibotik abiatzen da beti, zuzenean hasikin fibroso batetik (mintzeko osifikazioa, osifikazio periostikoa), edota kartilagozko molde baten gainean eratzen da hezurra (osifikazio endokondrala).

**es** osificación

**fr** ossification

**en** ossification

298

**osifikazio-gune (4)**

**es** núcleo de osificación

**fr** noyau d'ossification

**en** ossification center

299

**osteogenesi (4)**

Hezurren eratze-prozesua, osteoblastoen eta osteoklastoen funtzioa aktibatzearen ondorioz gertatzen dena. Aurreneko osifikazio-guneak sei bat asteko fetuan agertzen dira. Osifikazioaren abiapuntua bi eratakoa izan daiteke: zuntzeko matrize batetik abiatzen bada, osteogenesi desmala esaten zaio (garezur-gangako hezurrak sortzen dira horrela); kartilagozko matrize batetik abiatzen bada, berriz, osteogenesi endokondrala izaten da (izterrezurraren moduko hezur luzeak eratzen dira horrela).

**es** osteogénesis

**fr** ostéogénèse

**en** osteogenesis

300

**pronazio (4)**

Besaurrearen eta eskuaren mugimendua, supinazioaren kontrakoa. Oinarritzko posizio anatomikotik abiatuz, eskuak barrurantz bira egiten du, eta esku-ahurra atzera eta barrura begira geratzen da.

**es** pronación

**fr** pronation

**en** pronation

301

**sarkomero (4)**

Muskulu ildaskatuaren unitate anatomiko eta funtzionala, aktinaz eta miosinaz osatua. Muskuluaren uzkurdura miosinazko zuntzekak aktinazko zuntzeka finen gainean lerratzean datza, nerbioen erregulaziopean eta kaltzio ioien partaidetzarekin.

**es** sarcómero

**fr** sarcomère

**en** sarcomere

302

**supinazio (4)**

Besaurrearen mugimendua, pronazioaren kontrakoa. Oinarritzko posizio anatomikotik abiatuz, esku-ahurra aurrerantz edo gorantz zuzentzen da.

**es** supinación

**fr** supination

**en** supination

**tonu muskular**

Ik. muskulu-tonu

**urrunketa**

Ik. abdukzio



## 4. BIOKIMIKA

303

### **adenosina trifosfato (4)**

Sin. ATP (4)

Ehunen osagai normala den nukleotidoa. Base puriko bat (adenina), erribosa eta azido fosforikoaren hiru molekula elkartuz sortzen da. Eginkizun garrantzitsua betetzen du metabolismo molekularrean, Krebs-en zikloan bereziki.

**es** trifosfato de adenosina; adenosina trifosfato; ATP

**fr** adénosine triphosphate; ATP

**en** adenosine triphosphate; ATP

### **ATP**

Ik. adenosina trifosfato

304

### **azido laktiko (4)**

**es** ácido láctico

**fr** acide lactique

**en** lactic acid

305

### **D bitamina (4)**

Hezurak eta hortz-haginak normal eratzeko eta kaltzioa hesteetan behar bezala xurgatzeko ezinbestekoa den bitamina lipodisolagarria. D bitaminaren eskasiak errakitismoa dakar haurtzaroan, eta osteomalazia helduaroan.

**es** vitamina D

**fr** vitamine D

**en** vitamin D

306

### **fosfatasa alkalino (4)**

Osteoblastoek eta kartilago eta periostioko zelula proliferatzaileek jariatzen duten entzima. Umeetan, odol-plasman aurkitzen da, eta haren kantitatea balio normaletatik gora igotzeak (5-12 Bodansky unitatetik gora serumeko 100 ml-ko) osteoblastoen gehiegizko lana susmarazten du (Paget-en eritasuna, metastasiak, errakitismoa, eta abar), edo buxaduragatiko min horia.

**es** fosfatasa alcalina

**fr** phosphatase alcaline

**en** alkaline phosphatase

## 5. PATOLOGIA

### AE

Ik. artritis erreumatoide

### artikulazioen hantura

Ik. giltzadura-inflamazio

### 307

#### artritis (4)

Giltzaduren hantura, akutua nahiz kronikoa. Kartilagoen higaduragatik sor daiteke, edo gehiegizko azido urikoak eraginda, edo arrazoi ezezagunengatik ere bai (artritis erreumatoidearen kasuan gertatzen den bezala). Ondoez orokorra, mina, hantura eta, batzuetan, giltzadurako gorritasuna eta erresumina dira, mugimenduak egiteko zailtasunarekin batera, sintoma nagusiak. Artritisaren eboluzioa erabateko sendaketa izan daiteke, edo baita giltzaduraren ankilosia eta deformazioa ere.

**es** artritis

**fr** arthrite

**en** arthritis

### 308

#### artritis erreumatoide (4)

Sin. AE (4)

Hantura-gaixotasun multisistemiko kronikoa, gehienbat giltzadura periferikoetan azaltzen dena: sinobitis iraunkor, progresibo eta simetrikoa ikusten da gorputz-adarretako artikulazioetan, esku eta oinekoetan batez ere, eta mina eta deformazioak eragiten ditu. Talde etniko eta adin guztietako pertsoneri erasaten die, laugarren eta seigarren hamarkadan bereziki. Gaitzaren jatorria ez dago erabat argi oraindik, baina aho batez onartzen da sistema immunologikoak parte hartzen duela antigorputzak eratuz (faktore erreumatoidea).

**es** artritis reumatoide; AR

**fr** polyarthrite rhumatoïde; PR

**en** rheumatoid arthritis; RA

#### artritis infekzioso

Ik. artritis septiko

### 309

#### artritis septiko (4)

Sin. artritis infekzioso (4)

**es** artritis séptica; artritis infecciosa

**fr** arthrite septique; arthrite infectieuse

**en** septic arthritis; infectious arthritis

310

**artrosi (4)**

Giltzaduretako eritasun degeneratibo eta ez-inflamatorioa. Autore batzuen ustez, hasieran inflamazioak (artritisak, hain zuzen) eragindako lesioen ondorio izaten dira, nahiz eta lesio horiek klinikoki ustekabeen pasatu.

Normalean, berrogeita hamar urtetik gorako pertsonetan agertzen da, eta giltzadura bakarrari erasaten dio (belaun, aldaka, orno-giltzadura edo hatzetakoei), baina posible da pertsona gazteagoetan eta hainbat giltzaduratan ere agertzea. Ariketa fisikoaren osteko mina da sintomarik nabarmenena, eta, horrez gain, karraska-hotsak, deformazioak eta mugitzeko ezintasuna ere gerta daitezke.

**es** artrosis

**fr** arthrose

**en** osteoarthritis; OA; arthrosis

**belaun balgo**

Ik. genu valgum

**belaun baro**

Ik. genu varum

311

**berezko haustura (4)**

Sin. haustura patologiko (4)

Traumatismo minimo baten ondorioz gertatzen den hezuraren haustura. Aurrez zegoen osteopatia batek hezur hori lehendik ere ahuldu duelako izaten da.

**es** fractura espontánea; fractura patológica

**fr** fracture spontanée; fracture pathologique

**en** spontaneous fracture; pathologic fracture

312

**bihurdura (4)**

Sin. tortsio (4)

**es** torsión

**fr** torsion

**en** torsion

313

**bihurritu (4)**

Giltzadura baten lesio traumatikoa: bat-bateko tortsioaren ondorioz gertatzen da, edo lotailuen erresistentzia gaintzen duen edozein trauma handiren ondorioz. Lotailuaren zuntzak urratzetik hasi, eta haiek erabat hausterainokoa izan daiteke.

Giltzadura-gainazalek ez dute normalean beren arteko kontaktua galtzen, eta ez dago, beraz, lokadurarik. Mina eta, batzuetan, ekimosia ere agertzen dira, eta giltzadura handitu egiten da.

**es** esguince

**fr** entorse

**en** sprain

**bizkarreko min**

Ik. dorsalgia

314

**burtsitis (4)**

Giltzaduretako poltsa sinobialaren hantura. Jatorriz traumatikoa, erreumatikoa edo infekziosoa izan daiteke.

**es** bursitis

**fr** bursite

**en** bursitis

315

**conminuta haustura (4)**

Sin. zati anitzeko haustura (4)

Hezurra edo hezuraren zati bat, ezpal edo printz moduko zati txiki-txikitan puskatuz gertatzen den haustura-mota.

Indar handi baten eraginez (auto-istripu bat, esate baterako) gertatzen da.

**es** fractura conminuta  
**fr** fracture comminutive  
**en** comminuted fracture

316

**coxa valga (4)**

Izterrezur-lepoaren distrofia:

izterrezurraren lepo eta gorputzaren ardatzen arteko angelua 135° baino handiagoa da.

**es** coxa valga  
**fr** coxa valga  
**en** coxa valga

317

**coxa vara (4)**

Izterrezur-lepoaren distrofia:

izterrezurraren lepo eta gorputzaren ardatzen arteko angelua 120°-koa edo txikiagoa da. Deformitate hau sortzetikoa izan daiteke, esentziala edota sintomatikoa (errakitikoa edo traumatikoa).

**es** coxa vara  
**fr** coxa vara  
**en** coxa vara

**diskoko hernia**

Ik. hernia diskal

318

**distrofia erreflexu sinpatiko (4)**

Sin. I. motako min erregional konplexuaren sindrome (4); Sudeck-en sindrome (4)

Asaldu neurologiko kronikoa, gehienetan traumatismo txiki batek sortua. Sindrome honen ezaugarri nagusiak mina, hantura eta azaleko alterazio basomotorrak izaten dira; halakoek ez dute dermatoma zehatz baten eremua errespetatzen. Askoz ohikoagoa da goiko gorputz-adarretan.

**es** distrofia refleja simpática; síndrome de dolor regional complejo de tipo I; síndrome de Sudeck  
**fr** algodystrophie sympathique réflexe; syndrome douloureux régional complexe de type I; syndrome de Sudeck  
**en** reflex sympathetic dystrophy; complex regional pain syndrome type I; Sudeck's syndrome

319

**dorsalgia (4)**

Sin. bizkarreko min (4)

**es** dorsalgia  
**fr** dorsalgie  
**en** backache; dorsalgia

320

**entesitis (4)**

Sin. entesopatia (4)

Giltzaduraz kanpoko erreumatismoa, tendoien, lotailuen eta aponeurosien hezurreko lotuneetan kokatzen dena. Horregatik, lotuneen gaitza ere esaten zaio. Sarritan jatorri traumatikoa izaten du, epikondilitisaren kasuan, esaterako.

**es** entesitis; entesopatía  
**fr** enthésite; enthésopathie  
**en** enthesitis; enthesopathy

**entesopatia**

Ik. entesitis

**epikondilitis**

Ik. epikondilitis lateral

**321**

**epikondilitis lateral (4)**

Sin. epikondilitis (4); tenisleriaren ukondo (4)

Alboko epikondiloaren hantura mingarria, besaurreko eta eskumuturreko muskulu hedatzaileen gehiegizko esfortzuaren ondoriozkoa. Muskulu horien lotunea alboko epikondiloan dago; horregatik, han sortzen da hantura.

**es** epicondylitis lateral; epicondylitis; codo de tenista

**fr** épicondylite latérale; épicondylite; coude du tennisman

**en** lateral epicondylitis; epicondylitis; tennis elbow

**322**

**epikondilitis medial (4)**

Sin. epitrokleitis (4); golf-jokalariaren ukondo (4)

Erdialdeko epikondiloaren hantura mingarria, besaurreko eta eskumuturreko muskulu flexoreen gehiegizko esfortzuaren ondoriozkoa. Muskulu horien lotunea erdialdeko epikondiloan dago; horregatik, han sortzen da hantura.

**es** epicondylitis medial; epitrocleitís; codo de golfista

**fr** épicondylite médiale; épitrochléite; coude du golfeur

**en** medial epicondylitis; golfer's elbow

**epitrokleitis**

Ik. epikondilitis medial

**323**

**erradikulopatia (4)**

**es** radiculopatía

**fr** radiculopathie

**en** radiculopathy

**324**

**errakitismo (4)**

Hazkunde-garaiko eritasuna. Arrazoirik usuen D abitaminosia da, eguzki-gabeziagatik edo elikadura desegokiagatik. Ondorioz, kaltzioaren eta fosforoaren metabolismoaren trastornoak agertzen dira: osifikazio-guneko kartilagoaren kaltzifikazioa geratu egiten da, eta hezurrak, bigunak eta malguak direnez, deformatu egiten dira, muskuluen eraginagatik; horrela, kozkorrak agertzen dira (epifisiak handituak, arrosario errakitikoa, eskoliosia, coxa vara, etab.). Garezurraren deformazioak ikus daitezke (kraniotabesa), eta fontanelak berandu ixten dira. Ahultasun orokorrarekin batera, sukarra, izerdialdiak, gibelesko eta bareko endekapenak, min muskularrak, trastorno nerbioak, eta abar gerta daitezke.

**es** raquitismo

**fr** rachitisme

**en** rickets

**erreuma**

Ik. gaixotasun erreumatiko

**erreumatismo**

Ik. gaixotasun erreumatiko

325

**eskoliosi (4)**

Bizkarrezurraren malformazioa, alde baterako desbideratzea dakarrena. Jarrera txarren ondorioz ager daiteke (posturala), edo baita gaixotasunen baten ondorioz ere (eskoliosi organikoa edo sekundarioa), baina kasurik gehienetan ez da jakiten zein den egiazko arrazoia.

**es** escoliosis  
**fr** scoliose  
**en** scoliosis

**espondilitis ankilopoietiko**

Ik. espondilitis ankilosatzaile

326

**espondilitis ankilosatzaile (4)**

Sin. espondilitis ankilopoietiko (4)  
Ardatz-eskeletoaren, giltzadura handi eta nagusien eta giltzaduraz kanpoko zenbait egituraren asalduraren erreumatiko sistemikoa. Hiru aldiz usuagoa da gizonetako emakumeetan baino, eta 20-40 urte bitartean agertu ohi da. Sintoma nagusia bizkarreko mina da, eta ondoren datoz giltzaduretako minak eta ankilosi progresiboa. Mina gogorragoa da gauzez, eta goizeko zurruntasunarekin batera azaltzen da.

**es** espondilitis anquilosante;  
espondilitis anquilopoyética  
**fr** spondylarthritis ankylosante;  
spondylite ankylopoïétique  
**en** ankylosing spondylitis;  
spondylitis ankylopoietica

327

**espondilolisi (4)**

**es** espondilólisis  
**fr** spondylolyse  
**en** spondylolysis

328

**espondilolistesi (4)**

Bizkarrezurreko orno bat azpikoaren gainetik aurrerantz mugitzea, bizkarrezur-arkuko akats batengatik edo artikulazioaren endekapenezko gaitz batek artikulazio-gainazala higitzen duelako. Gehienetan, azken bi orno lunbarretan gertatu ohi da.

**es** espondilolistesis  
**fr** spondylolisthésis  
**en** spondylolisthesis

329

**estres-haustura (4)**

Sin. nekegatikoa haustura (4);  
gainkargatikoa haustura (4)  
Baldintza mekaniko berezi baina ez anormalen eraginpean hezur osasuntsu batek jasan dezakeen haustura. Hasieran, fisura mehe baten moduan agertzen da, hezurri indar etengabe edo errepikakor bat aplikatzeagatik, adibidez.

**es** fractura de estrés; fractura por sobrecarga  
**fr** fracture de stress; fracture de fatigue  
**en** stress fracture; fatigue fracture

330

**gainkarga (4)**

Muskulu edo lotailu baten gainean luzatze-indarra ezartzea.

**es** sobrecarga  
**fr** surcharge  
**en** overload

331

**gainkarga-lesio (4)**

Muskuluen gainkarga baten ondorioz sor daitekeen lesio-mota. Horrelakoak dira, esate baterako, tendinitis batzuk, faszitisak eta gainkargatikoa hausturak.

**es** lesión por sobrecarga  
**fr** lésion de surcharge  
**en** overuse injury

**gainkargagatiko haustura**

Ik. estres-haustura

**332**

**gaixotasun erreumatiko (4)**

Sin. erreumatismo (4); erreuma (4)

Gorputzeko ehun konektiboaren, bereziki artikulazioen eta haiekin lotutako egituren (muskulu, giltzadura-poltsa, tendoi eta zuntz-ehunaren) inflamazioarekin eta degenerazio edo alterazio metabolikoarekin agertzen den gaixotasuna. Mina eta zurruntasuna dira sintoma kliniko nagusiak.

**es** enfermedad reumática;  
reumatismo; reuma

**fr** maladie rhumatismale;  
rhumatisme

**en** rheumatic disorder; rheumatism

**333**

**gaixotasun erreumatiko kroniko (4)**

**es** enfermedad reumática crónica

**fr** maladie rhumatismale chronique

**en** chronic rheumatic disease

**334**

**garezur-haustura (4)**

**es** fractura de cráneo

**fr** fracture du crâne

**en** fracture of skull

**335**

**gatazka (4)**

Sin. kolisio (4)

Asaldu osteoartikularra: elkarren ondoko bi giltzadura-gainazalen artean blokeatua dagoen egitura anatomikoaren konpresioa du ezaugarri nagusia. Gatazkek nerbioen sustraiak, tendoiak, nerbioak, lotailuak eta baita oineko, eskuko edo bizkarrezurreko hezurak ere har ditzake (tartso-hezurak, metatartso-hezurak edo ornoarteko diskoak, esaterako), hezur horien hausturak edo disko-herniak sortzeraino.

**es** conflicto

**fr** coincement

**en** impingement

**336**

**gaztaroko artritis**

**erreumatoide (4)**

Sin. gazte-artritis erreumatoide (4)

**es** artritis reumatoide juvenil

**fr** polyarthrite rhumatoïde juvénile

**en** juvenile rheumatoid arthritis

**gazte-artritis erreumatoide**

Ik. gaztaroko artritis erreumatoide

**337**

**genu valgum (4)**

Sin. belaun balgo (4)

**es** genu valgum; genu valgo; rodilla valga

**fr** genu valgum; genou cagneux

**en** genu valgum; knock knee

**338**

**genu varum (4)**

Sin. belaun baro (4)

**es** genu varum; genu varo; rodilla vara

**fr** genu varum; jambe arquée

**en** genu varum; bowed leg

339

**giltzadura-inflamazio (4)**

Sin. artikulazioen hantura (4)  
Giltzaduretako egoera patologiko konplexua, ez oso ongi eta zehazki definitua, gorputzean zenbait faktore narritagarri edo infekziosok sortutako eraginaren aurkako erreakzio gisa agertzen dena. Lau dira sintoma nagusiak: gorritasuna, tumorea, beroa eta mina. Horiei funtzioaren trastornoa gehitzen zaie.

**es** inflamación de las articulaciones

**fr** inflammation articulaire

**en** joint inflammation

340

**giltzadurako isuri (4)**

Sin. isuri articular (4)  
Mintz sinobialaren narritaduragatik sortzen den gehiegizko likido-pilaketa, giltzadura-barrunbea betetzen duena. Isuria handia denean, artikulazioaren distentsio nabarmena azaltzen da.

**es** derrame articular

**fr** épanchement articulaire

**en** articular effusion; joint effusion

341

**giltzaduraren ezegonkortasun (4)**

Giltzadura baten edo protesi articular baten egonkortasunik eza, giltzadura barruko gaixotasunen batek eta giltzaduraz kanpoko egituren (kapsula artikularraren, lotailu eta muskuluen) osotasunik ezak eragina. Gehiegizko mugikortasuna agertu ohi da. Aldi berean, ordea, gutxitu egiten da ohiko mugimenduen anplitudea

**es** inestabilidad articular

**fr** instabilité articulaire

**en** joint instability

342

**giltzaduraren higadura (4)**

**es** desgaste articular; usura

**fr** effritement; dégradation articulaire

**en** articular degradation

**golf-jokalariaren ukondo**

Ik. epikondilitis medial

343

**haustura (4)**

Hezur baten etena, osoa nahiz partziala. Traumatismo, bat-bateko mugimendu edo gaixotasunen eraginez gerta daiteke, hezur-zatien desplazamenduarekin edo desplazamendurik gabe.

**es** fractura

**fr** fracture

**en** fracture

344

**haustura anizkoitz (4)**

Hezurra hainbat zatitan puskatzen den haustura. Beraz, bi haustura-lerro edo gehiago daude haustura-mota honetan, edo zenbait haustura independente, bestela.

**es** fractura múltiple

**fr** fracture multiple

**en** multiple fracture

345

**haustura baten kontsolidatze akastun (4)**

**es** consolidación viciosa de una fractura; callo vicioso

**fr** consolidation vicieuse d'une fracture

**en** mal-union of a fracture

346

**haustura desplazatu (4)**

**es** fractura desplazada

**fr** fracture déplacée

**en** displaced fracture



347

**haustura ez-desplazatu (4)**

Haustura-mota: hezur-zatiek beren posizio anatomikoari eusten diote, periostioko estalkia hautsi edo eten gabe.

**es** fractura no desplazada  
**fr** fracture sans déplacement  
**en** subperiosteal fracture

348

**haustura ireki (4)**

Ehun bigunen eta tegumentuen zauri baten bitartez fokua kanpoaldearekin komunikatua dagoen haustura.

**es** fractura abierta  
**fr** fracture ouverte  
**en** open fracture

349

**haustura itxi (4)**

Haustura-fokua kanpoaldearekin komunikatua ez dagoen haustura. Haustura-mota honetan ez dago inolako zauririk azalean.

**es** fractura cerrada  
**fr** fracture fermée  
**en** closed fracture

**haustura patologiko**

Ik. berezko haustura

350

**haustura-lokadura (4)**

Lokatutako artikulazio batetik gertu dagoen hezur-haustura.

**es** fractura-luxación  
**fr** fracture avec luxation  
**en** fracture-dislocation

**hausturaren kontsolidatzio falta**

Ik. pseudoartrosi

**hemorragia**

Ik. odoljarrio

351

**hernia diskal (4)**

Sin. diskoko hernia (4)

Ornoarteko diskoak kanal neuralean eratzen duen ezohiko irtengunea, nukleo mamitsua atzerantz bultzatu eta kanporatzean gertatua. Hernia diskalak L4-L5 diskoan agertzen dira gehienbat, eta gutxiagotan L5-S1 diskoaren gain. Sarritan, nerbio ziatikoaren sustraien konpresioa eragiten du herniak, eta lunboziatika edo ziatika esaten zaion min etengabe eta iraunkorra dakar horrek; herniatutako nukleoaren ablazioarekin soilik konpontzen da.

**es** hernia discal; hernia de disco  
**fr** hernie du disque intervertébral; hernie discale  
**en** herniated intervertebral disk; herniated disc

352

**herren (4)**

**es** cojo  
**fr** boiteux  
**en** lame; cripple

**hezur-abzesu**

Ik. hezurreko abzesu

353

**hezur-hauskortasun (4)**

Osteogenesiaren asaldur hereditarioa, sortzetikoa edo berantiarragoa, berehala konpontzen diren hezur-haustura ugariren bidez azaltzen dena. Kaltzioaren metabolismoaren trastorno batek eragina izan ohi da.

**es** fragilidad ósea  
**fr** fragilité osseuse  
**en** bone brittleness; bone fragility

**hezur-tumore**

Ik. hezurreko tumore

354

**hezurreko abzesu (4)**

Sin. hezur-abzesu (4)

**es** absceso óseo  
**fr** abcès osseux  
**en** bone abscess

355

**hezurreko tumore (4)**

Sin. hezur-tumore (4)

**es** tumor óseo  
**fr** tumeur des os  
**en** bone tumor

356

**hidrozefalia (4)**

**es** hidrocefalia  
**fr** hydrocéphalie  
**en** hydrocephalus

357

**higatu (4)**

**es** desgastarse  
**fr** s'user  
**en** wear

**I. motako min erregional konplexuaren sindrome**

Ik. distrofia erreflexu sinpatiko

**II. motako min erregional konplexuaren sindrome**

Ik. kausalgia

**isuri articular**

Ik. giltzadurako isuri

**jaiotzetiko aldakako lokadura**

Ik. sortzetiko aldakako lokadura

358

**kausalgia (4)**

Sin. II. motako min erregional konplexuaren sindrome (4)

Erre-sentsazio akutu moduko min zorrotza, larruazaleko hiperestesia eta fenomeno basomotor eta trastorno trofikoak ezaugarri dituen sindromea, nerbio periferiko baten –bereziki nerbio medianoaren edo kanpoko nerbio ziatiko popliteoaren– traumatismo edo kontusioaren ostean ikusi ohi dena.

**es** kausalgia; síndrome de dolor regional complejo de tipo II  
**fr** causalgie; syndrome douloureux régional complexe de type II  
**en** causalgia; complex regional pain syndrome type II

**kolisio**

Ik. gatazka

359

**kontusio (4)**

Sin. makadura (4)

Presioaren eraginez edo objektu kamuts batekin egindako kolpeen ondorioz sortzen den lesioa. Azaleko tegumentuak urratu gabe gerta daiteke (kontusio soila), edo ehunak urratuta (kasu horretan, zauri kontusoa esaten zaio).

**es** contusión  
**fr** contusion  
**en** contusion

360

**kostalgia (4)**

Sin. saihetseko min (4)

Saihets-hezurretan sentitzen den mina, saihetsarteko muskuluen inflamazioak eragina.

**es** costalgia; dolor costal  
**fr** costalgie; douleur costale  
**en** costalgia; rib pain

361

**koxalgia (4)**

Aldakako giltzadurako mina, gehienetan artrosiak eragina.

**es** coxalgia

**fr** coxalgie

**en** coxalgia

**kristalezko hezurren**

**gaixotasun**

Ik. osteogenesi inperfektu

362

**laxotasun (4)**

Zuntz muskular, konektibo edo elastikoen tentsio eta erresistentzia-mailako ezaugarria.

**es** laxitud

**fr** laxité

**en** laxity; laxness

**lepoko min**

Ik. zerbikalgia

363

**lesio neurologiko (4)**

**es** lesión neurológica

**fr** lésion neurologique

**en** neurological injury

364

**lokadura (4)**

Sin. luxazio (4)

Giltzadura bateko hezur-muturren dislokazio edo lekualdaketa iragankor edo iraunkorra, egoera normalean daukaten harreman anatomikoa gutxi-asko galtzerainokoa. Erdialdetik urrunduena dagoen hezuraren izena hartzen du (hala nola besahezurraren lokadura), edota baita lokatutako giltzadurarena ere (sorbaldako lokadura edo lokadura glenohumerala, esate baterako).

**es** luxación; dislocación

**fr** luxation; déboitement; dislocation

**en** dislocation; luxation

365

**lokatu (4)**

Hezur-mutur bat bere lekutik atera.

**es** luxar; dislocar

**fr** se disloquer

**en** dislocate

366

**lotailuen lesio (4)**

**es** lesión ligamentosa

**fr** lésion du ligament

**en** ligament injury

**lunbago**

Ik. lunbalgia

367

**lunbalgia (4)**

Sin. lunbago (4)

Gerrialdeko min akutu edo kronikoa, normalean L4-L5 edo L5-S1 mailan kokatua. Jatorri ugari izan ditzake min honek, hala nola muskulu, lotailu, nerbio edo ornoarteko diskoen patologiak. Bizkarrezurraren mugimenduak nabarmen mugatu edo murrizten dira.

**es** lumbalgia; dolor lumbar; lumbago

**fr** lombalgie; lumbago

**en** lumbar pain; lumbago; low back pain

**luxazio**

Ik. lokadura

**makadura**

Ik. kontusio

368

**mialgia (4)**

Sin. muskuluetakoko min (4)

**es** mialgia; dolor muscular

**fr** myalgie; douleur musculaire

**en** myalgia; muscle pain

369

**mieloma anizkoitz (4)**

Hezur-muineko zelulen ugalketak eragindako neoplasia. Hezur-ehuna deuseztatzen duten plasmazito anormalen agerpena eta proteina plasmatikoen egitura-aldaketa dira gaixotasunaren ezaugarri nagusiak. Klinikoki hezurretako mina da hasierako sintomarik usuena, bularralde edo bizkarrezurrekoa bereziki, eta kasuen % 60-70ean lesio osteolitikoak agertzen dira erradiologian.

**es** mieloma múltiple

**fr** myélome multiple

**en** multiple myeloma

370

**min (4)**

Sentsazio anormal eta desatsegina, gorputzeko nerbio-bukaera sentikorren gehiegizko kitzikadurak eragina. Behin sentsazio hori hauteman ondoren, integratu egiten du garun-azal edo kortex zerebraleko mailarik altuenak. Mina oso baliagarria gertatzen da zenbait alterazio eta gaixotasun diagnostikatzeko.

**es** dolor

**fr** douleur

**en** pain

371

**min akutu (4)**

Sin. min zorrotz (4)

**es** dolor agudo

**fr** douleur aiguë

**en** acute pain

372

**min erregional konplexuaren sindrome (4)**

Hiperaktibitate sinpatikoarekin erlazionaturiko sindrome mingarria, goiko gorputz-adarretan behekoetan baino maiztasun handiagoz gertatzen dena. Bi mota bereizten dira: I. mota, traumatismoen ondorioz sortua (distrofia erreflexu sinpatikoa), eta II. mota, nerbio-lesio zentral edo periferiko baten ondorioz sortua (kausalgia).

**es** síndrome de dolor regional complejo

**fr** syndrome douloureux régional complexe

**en** complex regional pain syndrome

373

**min kroniko (4)**

**es** dolor crónico

**fr** douleur chronique

**en** chronic pain

**min zorrotz**

Ik. min akutu

374

**miositis (4)**

Muskulu-ehunaren hantura edo inflamazioa, muskulu eskeletikoena bereziki. Talde nagusi gisa, miositis erreumatikoak eta nekearen edo gehiegizko ahalegin fisikoaren miositisak aipa daitezke.

**es** miositis

**fr** myosite

**en** myositis

375

**miositis osifikatzaile (4)**

Inflamazio kroniko batek eragindako muskulu-ehun ildaskatuaren berregituraketa, fibroblastoen ugalketarekin eta hezur-metaplasiekin lotua. Etiologia, sintoma eta tratamenduaren aldetik desberdinak diren bi forma kliniko (lokalizatua bata eta orokortua bestea) izan ditzakeen arren, trauma baten ostean nabarmentzen da sarritan, eta gaixotasunak neoplasia baten itxura har dezake.

**es** miositis osificante  
**fr** myosite ossifiante  
**en** myositis ossificans

376

**muskulu-distentsio (4)**

Sin. zaintiratu (4)  
Muskuluetako mina, gehiegizko entrenamenduak edota gehiegizko esfortzu fisikoak eragina. Muskuluzuntzak luzatu egiten dira, baina hausteraino ere irits daitezke.

**es** distensión muscular; tirón muscular  
**fr** foulure musculaire  
**en** muscle strain

377

**muskuluen atonia (4)**

**es** atonía muscular  
**fr** atonie musculaire  
**en** muscular atony

378

**muskuluen hipertonia (4)**

**es** hipertónia muscular  
**fr** hypertonie musculaire  
**en** muscular hypertonia

**muskuluetako min**

Ik. mialgia

**nekegatiko haustura**

Ik. estres-haustura

**neuralgia ziatiko**

Ik. ziatika

379

**odoljarrio (4)**

Sin. hemorragia (4)  
Odol-hodi bat hausten denean, odol-kantitate gutxi-asko nabarmena kanpora indarrez jariatzea.

**es** hemorragia  
**fr** hémorragie  
**en** hemorrhage

**OI**

Ik. osteogenesi inperfektu

**oin ahur**

Ik. oin sakon

**oin kabo**

Ik. oin sakon

**oin lau**

Ik. oin zapal

380

**oin sakon (4)**

Sin. oin kabo (4); oin ahur (4)  
Oin-zolaren kurbadura gehiegizkoa denean azaltzen den oinaren deformitatea. Deformazio hau desoreka muskular bati lotua dago, normalean. Behatzek makurtu eta uzkuertzeko joera dute, eta metatartsianoen buruen gainean egindako presioak kailuak eta mina dakartza.

**es** pie cavo  
**fr** pied creux; pes cavus  
**en** high arch foot; pes cavus

381

**oin zapal (4)**

Sin. oin lau (4)

Oin-zolaren ohiko kurbadura desagertzen denean azaltzen den oinaren deformitatea. Horrela, oin-zola ia bere luze-zabal osoan bermatzen da zoruan. Sortzetikoa izan daiteke, edo hartua, eta beste deformazio batzuekin batera ager daiteke.

**es** pie plano

**fr** pied plat; pes planus

**en** flat foot; pes planus

**ondorio**

Ik. sekuela

**osteitis deformatzaile**

Ik. Paget-en hezur-gaixotasun

382

**osteogenesi inperfektu (4)**

Sin. OI (4); kristalezko hezurren gaixotasun (4)

Hezur-sistemaren garapenaren sortzetiko akatsa, sintoma hauekin agertzen dena: hezurren hauskortasuna (edozein traumarekin hausturak agertzen dira), hezur-deformazioak (garezurrekoak bereziki), giltzaduren lotailu-hiperlaxotasuna (lokadurak), eta faneretako trastornoak (hortz meheak, hauskorrak; ilea erortzea; azazkal hauskorrak). Hezur-lesioak arindu egiten dira pubertarotik aurrera eta pronostikoa ez da hain txarra, biziari dagokionez.

**es** osteogénesis imperfecta; OI; enfermedad de los huesos frágiles

**fr** ostéogénèse imparfaite; OI; maladie des os de verre

**en** osteogenesis imperfecta; OI; brittle bone disease

383

**osteomalazia (4)**

Helduaroan hezurrak biguntzea, desmineralizazioaren ondorioz. D bitaminaren gabeziak eragina izaten da gehienetan, edo baita gorputzak bitamina hori deskonposatu eta erabiltzeko gaitasuna galtzeagatik ere. Odoleko kaltzio- eta fosforo-kontzentrazioak gutxitu egiten dira.

**es** osteomalacia

**fr** ostéomalacie

**en** osteomalacia

384

**osteomielitis (4)**

Hezuraren eta hezur-muinaren aldebereko gaixotasun larria, gehienetan bakterio piogenikoen edo mikobakterioek sortua. Staphylococcus aureus bakterioek sortutakoa da orokorrean, baina batzuetan zenbait onddok ere sor dezakete. Gaitz hau kronikoa edo akutua izan daiteke.

**es** osteomielitis

**fr** ostéomyélite

**en** osteomyelitis

385

**osteopatia (4)**

Hezurretako edo hezur-ehunetako gaitza.

**es** osteopatía

**fr** ostéopathie

**en** osteopathy

386

**osteoporosi (4)**

Hezur-metabolismoaren alterazioa: hezurreko matrizearen sorkuntza txikiagoa izatea eta hezuraren barruko arkitektura desitxuratzea dira gaitzaren ezaugarri nagusiak. Horrela, traumatismorik txikienaren aurrean, edo baita inolako traumarik gabe ere, hezur-hausturak jasateko arriskua askoz ere handiagoa izaten da. Erasan hori emakumeetan gertatzen da batik bat, amenorreiko edo posmenopausikoetan, estrogenoen maila jaistearen ondorioz eta bestelako gabezia hormonalengatik. Hala ere, hezur porotikoaren konposizio kimikoa normala izaten da, osteomalazian ez bezala.

**es** osteoporosis

**fr** ostéoporose

**en** osteoporosis

387

**Paget-en hezur-gaixotasun (4)**

Sin. osteitis deformatzaile (4)  
Jatorri ezezaguneko hezurretako gaixotasun ez-metabolikoa. Hezuraren erreabsortzio eta birsorkuntzaren desoreka gertatzen da, eta, horregatik, mosaiko itxurakoa izaten da sortutako hezur berria. Gaixotasunaren faseetan, osteoporosi sakona nahiz gehiegizko birsorkuntza gerta daitezke, eta, ondorioz, hezuraren deformitate garrantzitsuak eragin daitezke: zabaltze patologikoak, inkurbazioak, eta abar. Makroskopikoki, lesio litikoak eta deformitate hipertrofitikoak ikus daitezke, eta, analitikan, oso adierazgarria da fosfatasa alkalinoaren igoera.

**es** enfermedad de Paget de los huesos; osteitis deformante

**fr** maladie osseuse de Paget; ostéite déformante hypertrophique

**en** Paget's disease of bone; osteitis deformans

388

**paralisi (4)**

Muskulu-talde baten uzkurtze-gaitasunaren erabateko galera, iraunkor ala iragankorra. Normalean, nerbio-lesio zentral edo periferiko baten ondorioa izaten da.

**es** parálisis

**fr** paralysie

**en** paralysis; palsy

389

**paziente politraumatizatu (4)**

**es** paciente politraumatizado

**fr** patient polytraumatisé

**en** polytraumatized patient

390

**politraumatismo (4)**

Gorputz-atal bati baino gehiagori (buruari, bularraldeari, sabelaldeari eta gorputz-adarreari) erasaten dien traumatismoa, askotan pazientearen bizia arriskuan jar dezakeena.

**es** politraumatismo

**fr** polytraumatisme

**en** polytraumatism

391

**pseudoartrosi (4)**

Sin. hausturaren kontsolidatzio falta (4)

**es** pseudoartrosis; falta de consolidación de fractura

**fr** pseudarthrose; fracture non consolidée

**en** pseudarthrosis; nonunion of fracture

**saihetseko min**

Ik. kostalgia

392

**sakralizazio (4)**

L5 ornoaren zeharkako apofisiak gehiegi garatzea eta ornoak errain-hezuraren aurreneko segmentuarekin bat egitea.

**es** sacralización

**fr** sacralisation

**en** sacralization

393

**sarkoma sinobial (4)**

Sin. sinobialoma gaizto (4)

Zati bigunetako tumore gaiztoa, normalean gorputz-adarretako artikulazio handietatik gertu kokatua egoten dena.

**es** sarcoma sinovial; sinovioma maligno

**fr** sarcome synovial; synovialome malin

**en** synovial sarcoma; malignant synovioma

394

**sekuela (4)**

Sin. ondorio (4)

**es** secuela

**fr** séquelle; conséquence

**en** after-effect

395

**sindrome konpartimental (4)**

Konpartimentu anatomiko baten barruan presioa gehitzeak dakarren sindromea. Konpresioak odol-zirkulazioari eta konpartimentu horren barruan dauden ehunen osotasunari erasaten dio, eta kalteak eragiten ditu nerbioetan eta muskuluetan.

**es** síndrome compartimental

**fr** syndrome compartimental

**en** compartment syndrome

**sinobialoma gaizto**

Ik. sarkoma sinobial

396

**sinobitis (4)**

Giltzadura nahiz tendoi bateko mintz sinobialaren inflamazio akutu nahiz kronikoa. Mingarria izan ohi da, mugimenduak egitean batez ere, eta likido sinobialaren pilaketak hantura fluktuatzailea sortzen du artikulazioan.

**es** sinovitis

**fr** synovite

**en** synovitis

397

**sortzetiko aldakako**

**lokadura (4)**

Sin. jaiotzetiko aldakako lokadura (4)

**es** luxación congénita de cadera; subluxación de cadera

**fr** luxation congénitale de la hanche

**en** congenital dislocation of the hip; hip dysplasia

398

**subluxazio (4)**

Lokadura partzial edo ez-osoa. Aurretik lokadura bat izan ondoren lotailuak ahulagoak daudelako gertatu ohi da, edo jasandako traumatismoa hezurak bere lekutik erabat desplazatzeko nahikoa izan ez delako. Sortzetikoa ere izan daiteke, aldakaren kasuan, adibidez.

**es** subluxación

**fr** subluxation

**en** subluxation

**Sudeck-en sindrome**

Ik. distrofia erreflexu sinpatiko

399

**tendinitis (4)**

Tendoiaren inflamazioa, akutua zein kronikoa. Jatorriz traumatikoa nahiz erreumatikoa izan daiteke.

**es** tendinitis

**fr** tendinite

**en** tendinitis



400

**tendinopatia (4)**

Tendoietako gaitza.

**es** tendinopatía

**fr** tendinopathie

**en** tendinopathy

**tenislariaren ukondo**

Ik. epikondilitis lateral

401

**tenosinobitis (4)**

Tendoiaren eta kanpoko estalkiaren inflamazio edo hantura.

**es** tenosinovitis

**fr** ténosynovite

**en** tenosynovitis

402

**tortikolis (4)**

Lepoaren tortsio mingarria, muskulu esternokleidomastoideoetako baten uzkurdurak eragina (trapezioaren eta esplenioaren uzkurdurari lotua nahiz ez). Horrek buruaren albo-makurdura sortzen du. Era askotakoa izan daiteke: sortzetikoa, sekundarioa, neurogenoa, mentala, etab.

**es** tortícolis

**fr** torticolis

**en** torticollis; wryneck

**tortsio**

Ik. bihurtura

**trauma**

Ik. traumatismo

403

**traumatismo (4)**

Sin. trauma (4)

Kanpoko indar batek eragindako barruko nahiz kanpoko lesioa, eragile edo agente mekaniko, fisiko nahiz kimikoez sortua. Traumatismo mekaniko nagusiak hezur, muskulu eta tendoietako lesioak dira; traumatismo fisikoen artean, berriz, beroak eragindako erredurak, hotzak eragindako izozketak, eztanden ondoriozko lesioak, elektrokuzioak, etab. daude; traumatismo kimikoak, azkenik, substantzia erregarriek sortutako erredurak dira.

**es** traumatismo; trauma

**fr** traumatisme; trauma

**en** traumatism; trauma

**zaintiratu**

Ik. muskulu-distentsio

**zati anitzeko haustura**

Ik. conminuta haustura

404

**zerbikalgia (4)**

Sin. lepoko min (4)

**es** cervicalgia

**fr** cervicalgie

**en** cervicalgia

405

**ziatika** (4)

Sin. neuralgia ziatiko (4)

Nerbio ziatikoaren eta haren adarren ibilbidean zehar kokatutako min gogorarekin azaltzen den sindromea, defizit sentsitibo nahiz motorra ere izan ditzakeena. Gerrialdean hasi eta oinetara hel daiteke nerbioaren ibilbideari jarraituz. Anatomikoki, nerbio ziatikoaren lesio narritagarriek eragindakoa izan daiteke (neuritis ziatikoa), edo konpresioa eragiten duten faktoreek (herniak, infekzioak, tumoreak, eta abar) sortua.

**es** ciática; neuralgia ciática

**fr** sciatique; névralgie sciatique

**en** sciatica; sciatic neuralgia

406

**zuntz-haustura** (4)

**es** rotura de fibras

**fr** déchirure de fibres; déchirure musculaire; claquage

**en** strain; pulled muscle

407

**zurtoin berde gisako haustura** (4)

Haustura ez-osoaren mota: hezuraren kortikala bere zirkunferentziaren zati batean soilik hausten da, baina gainerako zatiak eutsi egiten dio, periostio-estalkiaren erabateko etenik gabe. Haurtzaroan ohikoa da haustura hau.

**es** fractura en tallo verde

**fr** fracture en bois vert

**en** greenstick fracture

## 6. DIAGNOSTIKOA. LABORATEGIA. PROBA ETA PROZEDURA DIAGNOSTIKOA

408

**alboko erradiografia (4)**

Sin. alboko plaka (4)

**es** radiografia lateral; placa lateral**fr** radiographie latérale**en** lateral radiograph**alboko plaka**

Ik. alboko erradiografia

409

**artroskopia (4)**

Giltzadura baten barrualdea ikusi eta aztertzeko modua ematen duen teknika endoskopikoa, aztertu nahi den giltzadura disoluzio fisiologiko batekin zabalduz egiten dena. Zauri txiki batzuen bidez, artikulazioaren egoera ikusteaz gain, maniobra terapeutikoak egitea ere ahalbidetzen du.

**es** artroscopia**fr** arthroscopie**en** arthroscopy

410

**artroskopia (4)**

Giltzadura baten barrunbea begiz ikusteko baliatzen den endoskopioa. Trokar batek, haren kanulak eta sistema optiko batek osatzen dute tresna.

**es** artroscopio**fr** arthroscope**en** arthroscope

411

**atze-aurreko erradiografia (4)**

Sin. atze-aurreko plaka (4)

**es** radiografía antero-posterior; placa AP**fr** radiographie antéro-postérieure**en** AP radiograph; antero-posterior radiograph**atze-aurreko plaka**

Ik. atze-aurreko erradiografia

412

**Barlow-ren maniobra (4)**

Aldakari adukzioa emanez, izterrezur-burua atzerantz bultzatu eta azetabulutik ateratzeko maniobra, hala gertatuz gero aldaka ezegonkorra dela adierazten duena (lokatzeko arriskua duela, alegia). Oso prozedura baliagarria da haur jaioberrietan aldakako sortzetiko lokaduraren diagnostiko goiztiarra egiteko.

**es** maniobra de Barlow**fr** manoeuvre de Barlow**en** Barlow's maneuver

413

**erradiografia (4)**

Sin. plaka (4)

X izpiek gorputz bat zeharkatu ondoren inpresionaturiko filma. Zilar bromurozko pikorrek ematen diote sentikortasuna filmari, erradiazio ionizatzaileen eraginez erreduzitzen direnez.

**es** radiografía; placa**fr** radiographie**en** radiograph

414

**erradiografia arrunt (4)**

Sin. erradiografia simple (4)

**es** radiografía simple**fr** radiographie simple**en** simple radiograph**erradiografia simple**

Ik. erradiografia arrunt

415

**erradiografia zeihar (4)**

Sin. plaka zeihar (4)

**es** radiografía oblicua; placa oblicua

**fr** radiographie oblique

**en** oblique radiograph

416

**Gram tindaketa (4)**

Germenak bereizteko erabiltzen den tindaketa bakteriologikoa. Koloragarria hartzen duten mikrobioak gram-positiboak dira, eta hartzen ez dutenak, berriz, gram-negatiboak.

**es** tinción de Gram

**fr** coloration de Gram

**en** Gram stain

417

**hezur-dentsitometria (4)**

Hezurren mineralizazioa kuantifikatzeko metodoa, aztertu beharreko hezurrezko egitura zeharkatzean erradiazioak jasaten duen atenuazioa neurtzean datzana.

Garrantzi berezia du osteoporosiaren diagnostikoan eta jarraipenean.

**es** densitometría ósea

**fr** ostéodensitométrie;  
densitométrie osseuse

**en** bone densitometry

418

**hezur-gammagrafia (4)**

Irudi bidezko azterketa, hezur-metabolismoa (hezuraren berriztapen-prozesua, azken finean) gehitua edo murriztua duten gunek erakusten dituena.

**es** gammagrafía ósea

**fr** scintigraphie osseuse

**en** bone scan

419

**laginak hartze (4)**

**es** toma de muestras

**fr** prélèvement d'échantillons

**en** sampling

420

**Ortolani-ren maniobra (4)**

Aldakari abduktzioa emanez, izterrezur-burua aurrerantz bultzatu eta azetabuluan sartzeko maniobra, hala gertatuz gero aldaka kanpoan dagoela adierazten duena. Oso prozedura baliagarria da haur jaioberrietan aldakako sortzetiko lokaduraren diagnostiko goiztiarra egiteko.

**es** maniobra de Ortolani

**fr** manoeuvre d'Ortolani

**en** Ortolani's maneuver

**PCE**

Ik. proteina C-erreaktibo

421

**pelbimetria (4)**

**es** pelvimetría

**fr** pelvimétrie

**en** pelvimetry

422

**pelbimetro (4)**

**es** pelvímetro

**fr** pelvimètre

**en** pelvimeter

**plaka**

Ik. erradiografia

**plaka zeihar**

Ik. erradiografia zeihar

**plano axial**

Ik. zeharkako plano

423

**plano frontal (4)**

Sin. plano koronal (4)

